

Kultura

Durango L'Atelier eskolak kalera aterako du dantza, asteburuan, Dantzaren Nazioarteko Egunaren harira > 11

Oinezkoak eta bizikletak: elkarrekin bizitzen ikasten

Durango hamar kilometroko bidegorria dago, baina zati batzuk oraindik ez daude lotuta. Oinezkoen eta bizikleten elkarbizitzan asko dago egiteko

Joan zen astean, bizikletan espaloitik zihoan herritar batek oinezko bat harrapatu zuen. Oinezkoa ospitalera eraman zuten, zaurituta, eta, ondoren, bizikletaria salatu egin zuen. Sigi Saga zikloturisten elkarte-kop Patxi Torregrosak dioenez, arauak baino garrantzitsuagoa da "kontzientziarioa", eta Duranguesa taldeak eta Stop Accidentesek garatutako kanpainak gogora ekarri ditu. Udala ere badabil hobekuntzak egiten. Hizkuntza Eskola, eta Zubiaurre eta Intxaurre kaleen artean obrak hasi dituzte, bidegorria eta errepidea hobeto bereizteko. > 3

Zornotza Saskibaloia Taldea historia egiten dabil

Zornotzak Urrezko Ligarako igoera fasearen finalaurreko kanporaketa hasiko du gaur, Guadalajaran. Sekula ez da hain urrun heldu. Zaleak eta taldekideak gogotsu daude erronkari aurre egiteko. > 15



Zornotza Saskibaloia Taldea



Durango > 2

Alde Zaharrekoek bitartekaria gura dute udalagaz hitz egiteko

Elorrio > 4

Kainaberaren hurrengo hitzaldian Estatu Islamikoa berbagai

Zornotza > 6

Ginekologia zerbitzua hobetzeko, sinadurak biltzen hasi dira

Otxandio > 8

Protestak, eskolako jantokian ordezkapenak ziurtatzeko

80 irakasle egon dira Jesuitetan, Kristau Eskolaren jardunaldian

DURANGO M.O.

Kristau Eskola ikastetxe sareko 80 bat irakasle Durangoko San Jose Jesuitak ikastetxean egon ziren atzo, teknologia berrien erabileraz eta sarean lan egiteko filosofiaz berba egiteko jardunaldian. Esaterako, Durangoko Jesuitak, Maristak, San Antonio Santa Rita eta Nevers ikastetxeetako irakasleek hartu zuten parte. Kristau Eskolak AuKEra izeneko programa sustatzen du, ikasleei ordenagailu bidezko ikasketa errazteko asmoz.

Jesuitak ikastetxea aitzindaria izan zen metodologia berriak probatzean, eta horren berri eman zuten jardunaldian. DBHko hirugarren eta laugarren mailetan, eta batxilergoan ordenagailu bana eman diete ikasleei. Ikasketa hobetzeko helburuaz aparte, arlo ekonomikoan ere etekina izan duela esan dute ardura-dunek. Ordenagailuen kostua gehitu arren, testuliburu batzuk kendu izanak gastua %20 murriztea ekarri die gurasoei.

Bizikletan segurtasunez ibiltzeko aurrerapausoak ematen dabilta

Zeintzuk dira oinezkoen eta zikloturisten arteko elkarbizitzarako gakoak?



Hizkuntza Eskola alboko bidegorri zatian, aparkalekuak aldatzen hasi dira.

DURANGO M. Onaindia

Joan zen astean, bizikletan espaloitik zihoan lagun batek emakume bat harrapatu zuen Juan Antonio Abasolo kalean. Emakumea ospitalera eraman behar izan zuten, eta bizikletariari salaketa ipini zioten. Durangon gero eta jende gehiago dabil bizikletan, baina zeintzuk dira oinezkoen eta zikloturisten arteko elkarbizitzarako gakoak?

Hainbat sektoretatik bizikletaz segurtasunez ibiltzeko aurrerapausoak ematen dabilta.

Hiri barruko zikloturisten Sigi Saga elkarteko Patxi Torregrosak uste du txirrindulari batzuk buru barik dabiltzala kaletik: "Gazteek telebistan ikusten dutena egiten dute, eta zoroen moduan dabilta bizikletagaz. Nagusiek uste dute denok garela euren modukoak". Torre-

grosak azaldu duenez, arauak dio ezin dela espaloitik joan, bidegorria erabili behar dela, edo bestela, errepidera salto egin, eta hango arauak onartu behar direla. Gainera, zebra bidea pasatzeko, bizikleta eskuetan hartu behar dela ere gogoratu du. Edozelan ere, arauetan baino errespetuan ikusten du giltza: "Badakit espaloitik joatea txarto dagoela, baina, oinez doana

molestatzen ez badut, zergatik ez naiz joango?"

Torregrosaren iritziz, aurrerapausoak ematen dabilta Durangon. Kontzientziazkoa garrantzitsua dela dio, eta umeen hezkuntza ere bai. Hain zuzen, ikastetxeetako umeekin hainbat saio eta irteera egin dituzte Sigi Sagak zein Durangesa taldeak, eta Stop Accidentes elkar-teak ere kanpainak garatu ditu.

Durangoko hamar kilometroko bidegorri sarean pauso batzuk eman barik daude oraindik; zati batzuk lotzea falta da, adibidez. Baina hobekuntzarik ere badabil egiten udala. Hizkuntza Eskolaren ondoan, Zubiaurreta eta Intxaurren kaleen artean, aparkalekua aldatzen hasi dira asteon, eta, baterian beharrenean, lerroan apartatu beharko da aurrerantzean. Horrela, bidegorrian doazentzako espazio gehiago sortu, eta segurtasuna hobetu gura dute.

Bestalde, bizikletan, oinezkoen eta autoen trafikoa handia dago Montevideo kalean, Sapuetxe ondoko pasabidean. Joan zen eguenean istripu bat egon zen bertan, eta herritar batek ingurua egoera txarrean dagoela salatu du udaletxean. Udalak erantzun dio gune hori behin-behinekoa dela, obrak egiteko daudelako.

Durangaldean herritarrok garaile!

Julio Lopez Carrizosa
 David Ferraz Sanchez
 Julia Prieto Ochoa
 Nikiel Lizarra Lizarra
 Urtzi Mendiz, Pineda
 Iñaki Armenthero Abrego
 Paul Vitor Aguiar Aguiar
 Miren Iturrigarai de Arribas
 Julia Baroja Baroja
 Karren Arriola Urzaiz
 Lorena Marín Izquierdo
 Aneke Beldarrain Belarrain
 Erika Jaka B. Irujo
 Aneke Zamora Iba Zamora

Bozkatu ehbildu



Titan Desert by Garmin lasterketan 614 lagunek parte hartu dute.

“Oso gogorra izan da, baina esperientzia benetan polita”

Basamortura Eskuzabal ekimen solidarioaren barruan joan dira Marokora

IURRETA Aitziber Basauri Marokoko basamortuan bizitako abenturatik heldu berri egin dugu hitzordua Eneko Barroetaz. Titan Desert by Garmin muturreko bizikleta proba egin du iurretarrak, Lea-Artibaiko eta Mendaroko bost lagunekin. Basamortura Eskuzabal ekimen solidarioaren barruan bizitakoez egin dugu berba.

Helburuak beteta bueltatu zarete.

Bai. Medikamentuetan 6.000 eurotik gora eta hiru metro kubiko arropa eraman ditugu, eta, bizikleta proba egitea lortu dugu.

Amatxorbe elkartearen bitartez bideratu duzue laguntza.

Bai. Berriatuko Jose Luis Basterretxeak urtero bidaltzen du bertara arropa, eta ekimen horregaz bat egin dugu. Bizikleta probagaz hasi aurretik utzi genuen guztia Montpellier kongregazioko mojen esku. Ekintza solidarioa eta kirola uztartzen ditugu Amatxorbe elkartean.

Zelakoa da bizikleta proba?

Oso gogorra izan da, baina ondo irten zaigu. Egutero 100 kilometrotik gora egin ditugu, inguru menditsuan hasi eta basamortuan bukatuz. Proba luze egin zaigu zati batean, eta, lehen etapen, gutako bat gaixotu ere egin zen. Sei etapa dira: lehenengo laurak balizatuta daude, eta, bosgarrenean, GPS koordinatuak besterik ez ditugu eduki dunetan zehar bidea egiteko. Gogorra izan da; hareatzen jaustea ez da eta samurra. Azken bi etapak basamortuan egin ditugu. Azkena izan zen laburrena: 65 kilometro.

Errazena ere bai?

Bai, baina oso gogor egiten da, oso luze: paisaia edo irudi berbera duzu aurrean denbora luzean. Abiadura ere ez da errepidean besteko arina. Egutero kotasunak eta bertako orografiak ez dute laguntzen.

Gogorra izan da esperientzia?

Oso gogorra, baina benetan poli-

ta. Askok gustatu zait. Profesionalekin egin dugu eguteroa; lasterketa giroa dago, gu geu bezala joan direnekin ere egon gara...

Apirilaren 27tik maiatzaren 2ra izan da lasterketa.

25ean ailegatu ginen. Aurreko bi egunak opor egunak izan ziren. Hala ere, proba bukatu ostean behar genituen bi egunok!

Errepikatze moduan?

Bai, baina lehiatzera joango nintzateke. Nahiko ondo ikusi dut neure burua. Denok ekimen solidario baten barruan joan gara oraingoan, horretara egokituta.

2010eko Panda Raid auto proba solidarioagaz alde handia igarri duzu?

Orduan ere egin genituen hamalau ordu autoan. Baina arazoak bestelakoak ziren. Bizikletan, esaterako, oso mingarriak diren ipurdiko zauriak ohikoak dira, horrelakoak asko zaindu behar dira egutero. Panda Raiden autoa zaindu behar da.

Montorra kaleko lursail bat hartu du udalak, herritarrei eskaintzeko

Aparkaleku publikoa, berdegunea eta pasealekua dira proiektu posibleak

ELORRIO Markel Onaindia Udalak 12.000 metro karratuko lursail bat hartu du Montorra eta Buskantz kaleen artean, udaletxearen atzealdean dagoen inguruan, hain zuzen ere. Lursail hori herritarren erabilerarako eskaintzea izango da helburua, Joseba Mujika alkateordeak prentsa ohar ba-

ten bidez azaldu duenez. Apar-kaleku publikoa, berdegunea eta pasealekua dira bertarako aurreikusitako proiektu posibleak. Gainera, jaietarako eta ekitaldi handietarako balio ahal duela ere uste du udalak.

Lurraren jabeagaz lau urterako lagapena sinatu du udalak, eta udalari eragingo dion kostu

bakarra epe horretako OHZ zerga (ondasun higiezinaren gaineko zerga) ordaintzea izango da.

Mujikaren arabera, Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean, etxebizitzaren erabilerarako zehaztuta dago lursail hori, baina, ez duenez funtzio hori betetzen, beste beharrezan bertarako erabiltzea erabaki dute.

tzuna dela-eta. Victor Pozasek hartuko du hitza, EHUko Nazioarteko Lankidetzeta eta Garpinari Buruzko Ikasketa Institutuko kideak.

Maiatzaren 27an, *Kulturartekotasuna gurean: integrazioa vs gatazka* berbaldea eskainiko du Julia Hernandez Valles jarduneko arartekoak.

Ekainaren 3an ATTAC elkar-tereko Jose Ramon Mariño ekonomialariak egingo du berba, eta Europako Batasuna eta AEBak lantzen dabilen merkataritza akordioa izango du abiapuntu: *TTIP, nora garamatza merkataritza libreko akordioak?* Berbal-di hori Elorrixa talde ekologis-tagaz elkarlanean antolatu du Kainaberak.

Estatu Islamikoaz berbaldea egingo dute

Kainabera elkarteak hitzaldi zikloa antolatu du

ELORRIO Eneko Azurmendi Elorriko Kainabera gobernu-kanpoko erakundeak berbal-di zikloa antolatu du maiatzerako. Lau hitzaldi antolatu ditu, eta eguazten honetan izan da lehenengo berbaldea: *Chepatitisa eta farmazeutikaren jokoa*. Osalde elkar-tereko Mario Fernandez medikuak eskaini du berbal-di hori. Askotariko gaiak jorratuko dituzte; tartean, Estatu Islamikoaren inguruko berbal-di eskainiko dute.

Aurtengo ediziorako berbal-diak egunez aldatu ditu Kainaberak; orain arte egutegian izaten ziren, eta aurtengoa eguaztenetan izango dira, 19:00etan, Iturri kultur etxean. Gaurkotasunagaz lotutako hainbat gai aukeratu dituzte hitzaldi ziklorako, “gaietan sakondu eta ezagutza kritikoa lantzeko”.

Maiatzaren 20an, Estatu Islamikoaren inguruko berbal-di eskainiko dute. Hainbat herritarrek.

Inma Berriozabal aske, zigorra bete ostean

Berriozabal gaixorik dago, baina zigorra bete du

ELORRIO M.O.

Inma Berriozabal elorriarra 18/98 auzian epaitu zuten, eta zazpi urte eta sei hilabeteko kartzela zigorra ezarri zioten gero. Eguaztenean irten zen A Lama-ko (Galizia) kartzelatik. Bere egoera berezia izan da; izan ere, elorriarra gaixorik dago, baina zigorra osorik bete behar izan du aske geratzeko.

Hainbat gaixotasun kroniko dauzka Berriozabalek: hipertentsioa, diabetesa, asma bron-

kiala, psoriasis eta artropatia psoriasikoa, adibidez. Horiek tratatzeko etxean egon beharko

Elorriarra 18/98 auzian epaitu zuten, eta zazpi urte eta sei hilabeteko kartzela zigorra ezarri zioten gero

lukeela eskatu izan dute bere senideek eta hainbat herritarrek.



Berriozabal, eguaztenean, kartzelatik irten berri. @EtXeratElkartea

ALMACENES ARRASATE

1982tik

TIEN 21



DURANGO
Intxaurren, 12 behea
Tel.: 946 813 485
60 m²-ko biltegia
100 m²-ko erakusketa

ARRASATE
Kataide Indust., pab. 3
Tel.: 943 771 352
650 m²-ko biltegia
200 m²-ko erakusketa



SIEMENS

AEG

ARISTON

Balay

BOSCH

Vaillant

Electrolux

LG

Miele

Panasonic

SAMSUNG

Saunier Duval

Whirlpool



A++

1000
b/min

6kg

SCHNEIDER
SLA 6135
GARBIGAILUA

261€

249€
kupoiarekin



A++

1200
b/min

7kg

ZANUSSI
ZWF-71250W
GARBIGAILUA

313€

299€
kupoiarekin



A++

5
urteko
bermea

FAGOR
LVF13AX
ONTZI-GARBIGAILUA

346€

330€
kupoiarekin

5
urteko
bermea

FAGOR
6H-760 BX
LABE
PIROLITIKOA
346€

330€
kupoiarekin

5
urteko
bermea

FAGOR
IF-33BS
INDUKZIOZKO
SUKALDEA
346€

330€
kupoiarekin



A++

2010
x 600
x 650

AEG
S-83820 CTX2
HOZKAILUA
733€

699€
kupoiarekin

GALDARAK

VMW 21/245 GALDARA
VAILLANT NOX BAXUA

1850€

THEMAFAST F25 GALDARA
SAUMIER DUVAL NOX BAXUA

1800€

EOIS NOX FF 24 GALDARA
ARISTON NOX BAXUA

1500€

FE 24 NOX GALDARA
FAGOR NOX BAXUA

1500€

Instalazioa
eta ziurtagiria
barne

% 5

eko deskontua gehitu etxetresna elektrikoetan
Durangoko dendan kupoi hau erakutsiz gero

2015eko uztailera arte

ALMACENES
ARRASATE

“Jendea harritu egingo da nekazaritzan eta artisautzan dagoen aniztasuna ikustean”

Kike Bilbao azoka antolatzen ibili da, eta bihar postu bi jarriko ditu bertan



Kike Bilbao, Apatan duen ortuan.

ATXONDO Joseba Derteano Atxondoko gaztetxeak II. Nekazari eta Artisanu Azoka antolatuko du zapatarako, 10:30etik aurrera. 25 postu egongo dira Apatako plaza inguruan. Kike Bilbao atxondarra da azokako antolatzaileetako bat, eta postu bi jarriko ditu.

Zer erakutsiko duzu zure postuan?

Bazkide bi gara, eta postu bana ipiniko dugu azokan. Batean, batez ere, landareak izango ditugu: tomateak, mugurdiak, letxugak, elorri beltzak eta marrubiak, esaterako. Bestean oiloekin eta arrautzekin egongo gara.

Nondik datorkizu baserri munduarekiko lotura?

Beti izan naiz ortukoa. Familiak beti izan du bere ortua, eta asko baloratu du etxeko jeneroa. Iruñean, Nekazaritza Ingeniaritza Teknikoa ikasi nuen nire bazkide Iker Garciagaz batera. Han elkar ezagutu genuen. Bera

berangarra da. Lezamako base- rri batean ondasun komunitate bat dugu askotariko produktuekin, eta Apatan ere badut ortua, igerilekuaren ondoan, eta berotegi bat egiten nabil.

Nekazaritza ekologikoa lantzen duzue?

Bai, ekologikoa lantzen dugu, oraingoz etiketa barik. EHKO Euskal Herriko laborari agroekologikoen kolektiboa da, eta horren barruan etiketa bat sortzen dabilta hainbat elkarteren artean. Guk etiketa hori lortu gura dugu.

Ekozilea ez ezik, azokako antolatzaileetako bat ere bazara. Zer ikusiko dugu azokan?

Ikusteko gauza asko egongo da. Nire ustez, jendea harritu egingo da nekazaritzan zein artisautzan dagoen pluraltasuna ikusten duenean. Esaterako, lagun batek gurpilak birziklatzen ditu lorontziak egiteko. Egurra eta harria lantzen duten atxondar bi ere egongo dira.

Beraz, denetarik ikusi eta erosi ahal izango da.

Bai, denetarik egongo da, eta azpimarratzekoa da ekoizle askoren gaztetasuna; esaterako, gazta egiten duten atxondar eta abadiñar bana, tapizak lantzen dituzten abadiñar bi eta oinetakoak egiten dituen elorriar bat egongo dira; denak gazteak.

Iazko lehen aldi bano postu gehiago egongo dira.

Nekazaritza, artisautza eta abeltzaintza postuak egongo dira, eta iazko kopurua bikoiztea lortu dugu: guztira, 25 postu izango dira. Gaztetxeak horrelako azoka bat antolatzea ez da ohikoa, eta, egia esanda, pozik eta ilusioz gaude.

Azokaren osterako zer prestatu duzue?

Egun osoko jai izango da. Pilotalekuan bazkaria egingo dugu eguerdian, eta postua jartzen dutenak gonbidatuta daude. Ondoren, 17:00etan jokoekin lagundutako poteoa egingo dugu herriko tabernetan zehar. Azkenik, 22:30ean, Aramaio-Arrasateko El Exterminio De La Raza del Mono eta Oñatiko Denbora Galdua taldeen zuzenekoak egongo dira gaztetxean. Gero, Ondarroako DJ Elepuntok jarriko du musika.

Arabako Villabuena herrira doaz dantzariak, hilaren 17an

IZURTZA J.D.

Izurtzako Udalak irteera bat antolatu du datorren maiatzaren 17rako, Arabako Villabuena herrira. Hango dantza taldeak, bere sasoiaren, dantza emanaldia eskaini zuen Izurtzan, eta orain Mendi Gain taldea joango da bertara emanaldia eskaintzera.

Udaletxean antolatuta irten den autobusean joango dira dantzariak, hainbat herritarrengaz batera. Egun osoko irteera izango da, eta askotariko dantzak erakutsiko dituzte.

Villabuenako dantza taldea herriko jai nagusietan etorri zen Izurtzara, eta Santa Ageda ermitaren ondoko zelaian eskaini zuen saioa, Mendi Gain dantza taldeagaz batera. Hain zuzen, Izurtzako dantza taldeak gonbidatuta etorri zen jaietara.

Villabuenako dantza taldeak saioa eskaini zuen jaietan; orain Izurtzako dantzariak doaz hara

Alex Txikonek berbaldia emango du Kultur Astean

Hurrengo barikuan bertso afaria egingo dute

MAÑARIA Markel Onaindia

Udalak antolatutako Kultur Astea bueltan da berriro, eta aipatzekoa da Alex Txikonek berbaldia eskainiko duela. Kultur Asteko bigarren egunean, hilaren 13an, etorriko da alpinista lemoarra, eta 19:00etatik aurrera kontatuko ditu bere bizipenak liburutegi zaharrea.

Martitzenean, umeentzako jolasak eta makillaje tailerra eskainiko dituzte. Barikuan, bertso afaria egingo dute Unai Iturriaga eta Fredi Paiagaz;

txartelak salgai daude herriko tabernetan. Domekan, hilaren 17an, artisau, landare eta elikadura azoka edukiko dute, eta

Domekan, hilaren 17an, artisau, landare eta elikadura azoka edukiko dute

ahuntz azpigorrien monografi-koa ere bai.



Iazko Kultur Astean ere ekitaldi ugari eskaini zituzten.

Ginekologia zerbitzua hobetzeko sinadurak

Esku-ohere eta ekografo berriak eskatzen dituzte

ZORNOTZA J.D.

Zornotzako anbulatorioko ginekologia zerbitzuan hobekuntzak eskatzeko martxan dagoen sinadura bilketa datorren eguaztenean amaituko da. Herriko hainbat norbanakok Aste Santu aurrean abiatu zuten bilketa, eta 300 sinadura batu dituzte.

Hobekuntza zehatz bi eskatzen dituzte. Lehen eskaera mugikortasun arazoak dituzten emakumei egokitutako es-

ku-ohere berri bat da. Adinekoei edo haurdun daudenei kosta egiten zaie esku-ohere igo eta bertatik jaitea. Bigarrena ekografo-umetokia ikusteko aparatua-berri bat jartzea da; dagoena zaharkituta dago, eta ez ei ditu diagnostiko zehatzak ahalbidetzen. Ekimenagaz bat egiteko modu bi daude: sustatzaileen-gana jo eta sinatzea, edo anbulatorioan eskari horiek jasotzen dituen kexa bat erregistratzea.

Txakolin Eguna izango dute Luis Urrengoetxea kalean

Jan-edana eta kale animazioa egongo dira bihar

ZORNOTZA J.D.

Lutaber elkarteak Txakolin Eguna antolatu du biharko, Luis Urrengoetxea kaleko tabernetan. Jan-edana eta kale animazioa egongo dira egun osoan.

Edateko kopa erosten duenak -euro bi balioko du- euro batean dastatu ahal izango du Gorka Izagirre txakolina, ohi baino merkeago. Egun osoan egongo

da horretarako aukera Tomasa, Pozu's, Hitzak, Urtza, Belatxikieta, Auzokoa, Leku Berri, Far-far, Harrison eta Vintage tabernetan.

Era berean, 13:00etatik 15:00etara, edatekoa eskatzen duenak pintxoak dohainik dastatu ahal izango ditu. Iluntzean Habemus fanfarreak giro tuko du jai.



EMOZIO EZGAITASUNA

Gaur egun gizarteko pertsona heldu gehienak euren emozioenganako duten kudeaketa eta kontrol gaitasuna, berezitasunez tentsio maila jasodun egoerak azaldu edota interes mota desberdinetako auziak aurkezten direnetan, hutsaren hurrengo da, erabat hutsa ez esatearren.

Emozio ezgaitasun nabarmen horrek, zailtasunik soilenak, iritzien desadostasun bakanak edo jatorrian tentsiorik ez duten egitateekiko interpretazio desberdinak narritadura handia eta berebiziko haserrealdien eragile izaten diren arazo larri bihurtzen ditu, giza harremanen kalte larri eta batzuetan atzera biderik izaten ez duen egoera eta urratu pertsonal asko erakarrit.

Aiputakoa bezalako egoera horiek nagusiok gure sentimenduei gure ekintzak gobernatzeko baimena ematen diegulako, gure erantzukizunari argi eta garbi uko eginez, gertatzen dira. Erantzukizunez jardungo balitz, sentimenduek ez lituzkete inoiz gure ekintzak kontrolatuko eta, ondorioz, sentimendu horiek baloreen menpe jarriko genituzke beti, gizaki erabat proaktibo bezala jardunaz. Ostera, ohiko jardura pertsona errektibo gisa aritzea izaten da.

Formazio prozesuan diren adin txikiko ikasleen heziketarekiko erantzukizuna helduei dagokiela suposatzen da, eta aipatutako zeregin hori aita edo ama "titulua" edota, dago-kionetan, irakasle (eskolakoa edo partikularra) izateak berez, "per se", besteko barik, pertsonak trebatu eta hezteko gaitasun, egokitasun eta trebetasuna aitortu eta horretan jantziak

direla ulertzen da. Egi izatetik erabat urrun.

Errealitateak eskaintzen digun kasuistika ikaragarri aberatsa da, naroa, heldutasunaren besoetan aurkitzen garenek sentimenduak eta emozioak kontrolatzen ikasi beharko genukeela etengabe erakusten baitigu, giza ekintzak, zoritxarrez, gehiengotan, euren menpe baitaude.

Hain da hori horrela ze, ikasleek jarduteko eta sentitzeko modua, helduak luzaroan, tantaka tantaka, semeen kontzientzietan euren gaitasun, trebetasun eta ahalbideei buruz hainbat alditan guztiz ezezkorrak diren eraikiz joan diren ideiak adieraztera ematen ibili izanak sendo eragindakoa izaten da.

Helduak, halaber, semeek formazio pertsonal eta garapen intelektualaren aldi desberdinetan zehar eraikiz joan diren euren buruarekiko sarritan izaten duten ikuspegi ezezkorraren erabateko erantzukizuna dute, "autoikuspegi" ezezkor hori, era isilean, ezkutuan eta sistematikoan, aldiro aldiro, asmo txarrik gabe baina, aitek,

amek eta irakasleek seme/ikasleei oparitzen dizkien iraingarri izanagatik zoritxarreko diren mezu eta adierazpen hartzaile pasibo egoeran "gordez" joan izatearren eratuaz izanez.

Gurasoek, euren semeen iseka eta kalterako, batzuetan [seme-alabei zuzentzen zaizkien edo eurez beste batzuekin solasean], holako adierazpenak erabiltzen dituzte: <<leloa zara>>, <<guztiz alferra zara>> <<ez zara ezertarako gauza>> <<nahigabeak besterik ez dizkidazu ematen>> <<atsekabez hil egingo nauzu>> <<gutxienez zure arrebak emaitza onak ateratzen dizkit>> <<begira, zure aitzak nolako emaitzak dituen eta zu, ostera, ezinean beti>> <<ez duzu zure anaiaaren antzik>> etab., eta horrek guztiak formazio prozesu bete bete dagoen autoestimua erabat birrintzen du. Bide okerra.

Aipatu bezalako izaera zital eta doilorra duten unean unean edo jarraian egindako adierazpenak, <<horrelakoa zarenez...>> aldatzeko ezer egiterik izango ez duen mezu ezezkor

garbia helarazten dio hartzaileari.

Helduek semeen nortasuna ikaragarri baldintzatzen dute euren zuzentzean darabiltzaten era eta moduegatik, euren erabiltzen duten hizkeragatik eta hizkerarekin transmititzen dituzten mezuekin ere. Hori ez da bide egokia.

Adibide gisa, oraintsu gure PRAKAGORRI formazio egotzan izan dugun Batxilerraren lehen maila ikasten dabilen ikasleekin batera zetorren ama guztiz arduratutako baten bertaratzea izan dugu. Ama, bere semeak egun bizi duen egoera kritikoa azaltzen zegoenean semeari begiratu, nire aurrean, <<oso inteligentea da baina alfer hutsa da>> adierazi zion. Ez du komentariarik behar.

Garrantzitsua da semeak, adinaren arabera, beharrezkoak duten mugimendu-askatasunaz gain erabakiak hartzeko gaitasuna eta ahalmena izatea, horretara euren itxaropen, helburu, eta ausardia izango baitira garatu nahi duten norabidea ezartzeko elementu garrantzitsuak.

Autoestimua eta balorazio pertsonalak ez dute inguruko pertsonen egindako ebaluazioen menpe egon behar, horrela beste desioen eta manipulazioen jopu bihurtzen baitira.

Pertsona batzuk, bikainak direla esanez edota gauzak oso ondo egiten dituztela aitortuz, etengabeko onarpena jasotzeko beharizan eraginda gizaki erabat menpeko bihurtzen dira arlo emozionalean eta, ondorioz, inolako kritikarik edota euren ekintzeenganako espero duten onarpenik jasotzen ez baldin badute gaitzespen eta arbuio handiaren sentsazioa izaten dute.

Helduak sarritan semeen jardura eta ekintzen kontrolaren beharizan nabaria adierazten dute eta, oro har, semei gero eta erantzukizun maila handiagoak onartu eta aitortzeko, erabaki ahalmen askea izateko, errakuntzarako aukera izan eta bertatik ikasi ahal izateko eta beste hainbat antzeko ekintzarako, nahiko mesfidati azaltzen dira, baina berezitasunez, mes-

fidantza hori esanguratsua izaten da, adinaren arabera, semeak etengabe barneratuz joan behar duten, mailaz maila eta naturaltasun osoz, gero eta erantzukizun handiagoko jardura eremuetan hartu beharreko erabaki eta ekintzetan erabateko konfiantza, zuhurtziaz gabekoa, osoa, erakutsi eta aitortu behar zaienean.

Konfiantzarik ezak edota zuhurtziazko konfiantzak frustrazio maila handiak sorrarazten ditu eta horrek, sarritan, estualdi egoerak dakartza, <<ez naiz gai>> luzaroan entzun izan ondoren barneratutako sinismena kontziente bihurtzen baita. Egoera horiek ekidin egin behar dira, geure buruarekin lasai bizi izaten ikastea baita garrantzitsua, hau da, geure buruarekiko dugun ikuspegi beste gutaz pentsatzen dutenaren arabera izan gabe.

Martin Seligman, egun ospe eta eragin handiena duen psikologoa hauxe dio: "Gurasoek umeei autoestimua bultzatu eta buruan sartzen saiatzen dira. Jarrera hori ez da kaltegarria, baina egiteko duten era ikusita umearen balorearen zentzua higatzen du. Umeak "sentitzen" duena "egiten" duenaren bizkar-ikasi, ekin, frustrazioa eta gogait egitea gaintu, eragozpeni aurre egin- nabarmen zean, guraso eta irakasleak umeen belaunaldi hori depresioak errazago erasotzeko egoeran jartzen dute."

Gure barnera begiratu eta gure baitako eremuak aztertu eta arakatzeko betebeharra dugu, zer nahi dugun erabakiz eta beste inori ezer eskatzen ibili eta ausartu aurretik geure buruari zer eta zenbat eskatu behar dugun ezarrit, gure helburu eta gurariak zeintzuk diren ebatzi eta gure bizitzaren ardatz diren printzipio eta baloreak zehaztu eta ahalik ondoren, onartutako erabakiekin kontsekuenteak izanez eta euren arabera erarik onenean bizitzeko lan egin. Erroka makala da, baina norbere gaitasun eta jarrerak hobetu nahi izanez gero, egin beharrekoa.

irakurri 4
ALDIZ ARINAGO
EMAITZA HARRIGARRIAK !

Hobetu egizuz zure irakurketa-abiada eta ulermenak!
Errotik aldatuko dozuz zure irakurketa-gaitasunak.
Irakurketa-abiada handia eta ulermen bikaina.



HELBIDE BERRIA

PRAKAGORRI
Reading skills

Tel.: 94 491 57 63
Kurutzaga kalea, 30 DURANGO
prakagorri@prakagorri.es

9 urtetik aurrera, adin muga barik, PRAKAGORRI dozu zure eta zure semeen urtenbide

Eskolako jantokian ordezkapenak bermatu daitezela eskatu dute

Eguaztenean ez zen jantoki zerbitzurik izan, eta bakoitzak bere etxetik eramandakoa jan zuten; Hezkuntza Sailari zuzendutako protesta ekitaldia izan zen



Eguaztenean, etxetik eramandako janaria bazkaldu zuten umeek jantokian.

OTXANDIO Joseba Derteano Larrialdietarako ebakuazio simulazioak egiten diren eran, eguaztenean, jantoki bako simulazioa egin zuten Otxandioko eskolan. Nork bere etxetik eramandakoa jan zuten jantokiko 100 erabiltzaileek. Hezkuntza

Sailak zerbitzu hobea bermatu ezean, simulazioa errealitate bilakatu daitekeela salatzea izan zuten helburu.

Eskaera nagusia da sukaldari titularra gaixotuz gero, horren ordezkapena bermatzeko dauden arazoak konpontzea:

“Hezkuntza Sailak lan poltsetara jotzen du, eta hor esaten dute inguruko zerrendetan inor ez dagoela Otxandiora joateko moduan”, azaldu du Iñigo Ramos eskolako zuzendariak. “Eskolan urtero entzuten da zerrenda berriro zabalduko dela, ordezkapenak egiteko jende gehiago sartzeko, baina oraindik ez da zabaldu”. Beste irtenbide bat Arabako zerrendetara jotzea izan daiteke, “baina hori ere ezinezkoa omen da”.

Gainera, ordezkapen eskerei ematen zaion erantzuna “azken unean iristen da, arratsaldeko saioak amaitzear daudenean, eta gurasoei abisatzeko apenas denborarik gabe”, Ramosek adierazi duenez.

Arazo horien aurrean, eguneroko zerbitzua bermatzeko “magia” egin beharrean egoten direla adierazi du: “Egun librea hartu behar zuen sukaldariak ez du eguna hartzen kaosa iritsi ez dadin; hiru orduko kontratua duen sukaldari laguntzaileak bere lan jarduna bikoiztu egiten du umeak otordurik gabe ez uzteko; jantokiko begiraleak sukaldari laguntzaile bihurtzen dira; eta eskola ordurik ez duen irakaslea ogia mozten hasten da”.

Modu horretara eguneroko zerbitzua bermatzen dutenez, “ematen du Otxandioko eskolan ez dagoela arazorik”, baina eskola txiki batean sukaldari bat kolokan edukitzeak “ondorio larriak” izan ditzakeela uste du Iñigo Ramosek, “zerbitzua bera kolokan jartzen duelako”.

San Isidro eguna ospatuko dute garaitarrek datorren barikuan

GARAI M.O.

San Migel nagusien elkarreak antolatuta, San Isidro eguna ospatuko dute garaitarrek datorren barikuan, hilaren 15ean. Eguerdiko 12:00etan egingo duten mezagaz hasiko da ospakizuna, eta ostean bazkaria izango dute.

14:00etan batuko dira Herriko tabernan bazkaltzeko.

Nagusien elkarrekoek adierazi dutenez, bazkaria herritar guztiei zabalik egongo da

Nagusien elkarrekoek adierazi dutenez, bazkaria herritar guztiei zabalik egongo da, elkarreko bazkide izan zein ez. 28 euroko menu oparoa dastatuko dute: perretxiko krema, legatza, postrea... Izena emateko azken eguna maiatzaren 14a izango da, eta herritarrek parte hartzera animatu gura dituzte elkarrekoek.

Udan ume saharuiak etxean hartzeko kanpaina martxan da

MALLABIA Jone Guenetxea Mallabiko familiei uda saioan ume saharuiak etxean hartzeko gonbita luzatu die udalak. Haurrak bi hilabetez etorriko dira Euskal Herrira, ekaineko azken astetik abuztuko azken astera, gutxi gorabehera. Mila Mondragon Mallabiko alkateak azaldu duenez, “aurten ere udalak umeen gastuak bere gain hartuko ditu”. Gaineratu duenez, Saharagaz “konpromiso irmoa” du Mallabiak. Era berean, Gabon inguruan Durangoko Herria auzo elkarreko antolatzen duen elikadura bilketan parte hartzen du herriak. Eskaera egiteko edo informazio gehiago eskatzeko udaletxeko Ongizate Sailera jo daiteke (943 171 461). Izena emateko azken eguna maiatzaren 18a da.

Udalekuetako begiraleak Udalekuetan begirale jardun gura dutenek hilaren 15era arte eman dezakete izena. 18 urte izan behar dituzte, euskara maila ona eduki behar dute eta herria ezagutu behar dute. Curriculumak satxibu@hotmail.com e-mailera bidali behar da.

Asteleheneretik aurrera eman daiteke izena udalekuetan

Pagotxa aisialdi elkarteak hezitzaile bila dabil

BERRIZ Amaia Ugalde Uztailaren 6tik 24ra izango dira, aurten, Berrizko Udalak eta Pagotxa aisialdi elkarteak elkarrean antolatutako udalekuak. Astelehenera hasiko da izena emateko epea, eta maiatzaren 27ra arte egongo da horretarako aukera. Hiru talde egongo dira: Haur Hezkuntzakoek Txiki-txoko izango dute, Lehen Hezkuntzakoek Gazte-txoko eta DBH-

koek udaleku ibiltariak izango dituzte kostaldetik.

Udalekuetan behar egiteko hezitzaile bila dabil Pagotxa. Maiatzaren 18ra arte bidali daitezke curriculumak pagotxa.kurrikulumak@gmail.com helbidera. Aisialdiko hezitzaile titulua eta EGA izatea eskatu dute elkartetik; kontuan hartuko dituzte Berrizen bizitzea eta udalekuetan esperientzia izatea.

Ilargi argazki taldeko sei kideren erakusketa, Eibarren

Maiatzean egongo da talde erakusketa hori zabalik

ZALDIBAR I.E.

Jon Agirre, Antonio Villanueva, Jon Iriondo, Delfin Zubizarreta, Rafa Iraeta eta Joseba Arginzoniz Ilargi taldeko argazkilari zaldibartarren erakusketa kolektiboa dago ikusgai, hilabete osoan, Eibarko Corte Inglés merkataritza zentroan. Maiatzaren 2an zabaldu zuten erakusketa, eta 30era arte ikusi ahalko da. Egund osoan, 11:00etatik 21:00eta-

ra dago erakusketara gerturatzeko aukera.

Aipaturiko Zaldibarko sei argazkilari horien launa argazki dira erakusketa kolektiboa osatzen dutenak. Lehenago ere lanak elkartu eta erakutsi izan dituzte argazkilariak. Bigarren aldia da taldean osatutako erakusketa bat antolatzen dutena. Zaldibarren bertan antolatu zuten lehenengoa, azaroan.

Santrokazak hasteko, Gerbasen kalejira egingo dute martitzenean

ABADIÑO Itsaso Esteban Martitzenean ekingo diete Abadiñoko San Trokaz jaiei. Ohiturari jarraituz, Gerbasen kalejira, eta txistularien eta dantzarien saioa izango dira lehenengo ekitaldiak. 21:00etan, San Trokaz plazan izango da jaietako lehenengo hitzordu hori.

Anje Duhalde, Arcada Social eta Zea Mays taldeen kontzertuak antolatu ditu, besteak beste, Jai Batzordeak

Maiatzaren 24an emango dituzte jaiak amaitutzat, baina horren aurretik, bi aste baino gehiagoz, herritar guztiei eskainitako ekitaldiak izango dira aukeran, Zelaietan, San Trokazetako Jai Batzordeak antolatutako umeei zuzenduriko hainbat ekintza, herri bazkariak, kirol saioak eta gustu guztietarako zuzeneko musika emanaldiak. Anje Duhalde kantaria eta Zea Mays eta Arcada Social taldeak entzuteko aukera egongo da, adibidez.

Independenteek eta Bilduk eskatu dute frackinga ez baimentzeko

ABADIÑO I.E.

Abadiñoko Independentek taldeko udal gobernuak eta Bilduk joan zen martitzenean onartu zuten, udalbatzarrean, Durangaldeko Fracking Ez taldeak aurkezturiko mozioa. Eneko Etxebarria EAJko zinegotziak, ostera, adierazi zuen ez daukatela “gaiaren inguruko datu nahikorik, ezta behar den analisisa ere”, eta mozioaren kontra bozkatu zuten jeltzaleen ordezkari biek.

Fracking gabeko herria

Abadiñoko Independentek taldeko eta Bilduko ordezkariak mozioa onartu ostean, Durangaldean haustura hidraulikoa edo frackinga erabiltzearen kontra agertu da Abadiñoko Udala. Bestalde, gas ez-konbentzionala –erregai fosila– ustiatzeko teknika horrek ingurumenean eta pertsonen osasunean sortzen dituen kalteak kontuan hartuta, Abadiño *Fracking gabeko udalerrri* izendatzea onartu dute. Gainera, Sustraiak hidrokarburu ikerketa baimena bertan behera uztea ere eskatu du Abadiñoko Udalak.

**Hauteskundeak**

Gauerditik aurrera martxan da hauteskunde kanpaina

Dena gertu dago maiatzaren 24ko udal eta foru hauteskunde kanpainerako



Taulak gertu daude hauteskundeetako kartelak jartzeko.

“Durango aldatzeko” 150 proposamen ditu EH Bilduk

EH Bildu Markel Onaindia “Durango aldatzeko” 150 proposamen aurkeztu ditu EH Bilduk, koalizioko zerrendaburu den Dani Maeztoren arabera. Bere iritziz, EH Bildu da Durangon aldatzeko liderra izateko aukera bakarra.

Maeztuk adierazi du, gobernura helduz gero, Durangoko Udalean politika egiteko modua aldatu gura dutela. Gardentasuna eta gertutasuna izango ei dira euren oinarriak. Auzo kon-

tseiluak sortzeko, kargudunen soldatak %50 bajatzeko, aurrekontuak partaidetzagaz lantzeko eta “pistolaren udaltzaingogaz” amaitzeko konpromisoak hartu ditu koalizioak, besteak beste.

Bestalde, Mallabian Julen Pradera izango da EH Bilduren alkategaia. Adierazi dute esperientzia eta gaztetasuna hartu dituztela kontuan zerrenda osatzeko. Esti Arrizabalaga da zerrendan bigarrena.



Durangoko EH Bilduko kideak, Andra Marian duten lokalaren alboan.



Mallabiko EH Bilduren argazkia; Julen Pradera erdian, behean.

Enplegua sustatzea eta hiri eraldaketan sakontzea, zutarri

EAJ Joseba Derteano Zornotzako EAJk hauteskundeetarako programa aurkeztu du. Herritarren beharrianak jaso ostean osatutako programa dela adierazi dute alderdikideek. Hainbat bitarteko erabili dituzte: esaterako, partaidetza foroak antolatu dituzte.

DURANGALDEA M.O.

Aste bi falta dira maiatzaren 24ko udal eta foru hauteskundeetarako, eta gaur gauerdian jarri da martxan ofizialki hauteskunde kanpaina. Taulak prest daude alderdiek kartelak jartzeko.

Dagoeneko Durangaldeko herritako alderdi gehienek euren zerrendak eta proposamenak ezagutarazi dituzte. Durangon, EAJk eta EH Bilduk berdindu egingo lukete, udalak egindako inkestaren arabera. Beraz, azken unera arteko lehia izango dute jeltzaleek eta koalizioak. Aurtengo hauteskundeetan beste osagaietako bat Podemosen agerpena da. Tokian tokiko plataformen bidez hartuko du parte Pablo Iglesiasen alderdiak udal hauteskundeetan, Zornotzan, Elorrioren eta Durangon.

Andoni Agirrebeitia alkategaia agintaldirako zutarri nagusien berri eman du. Lehena, enplegua sustatzea; enplegurako eta sustapen ekonomikorako bulegoa sortuko lukete, zerbitzu integral eta pertsonalizatua eskainiko lukeena. Bigarren zutarria Zornotzan azken urteetan izandako hiri eraldaketaren bidean jarraitzea da. Esaterako, Betarraganen kiroldegi bat egiteko asmoa dute, Ixerbekoakoa ordezkatzeko lukeena.



Eguenean, Zornotzako batzokian egin zuten programaren aurkezpena.

Sarrigoitia, Herriko Taldearen zerrendaburu

GARAI M.O.

Garaiko Herriko Taldeak udala gestioatzen jarraitu gura du, eta Gontzal Sarrigoitia egungo

alkatea izango da zerrendaburu. Zinegotzi batzuek zerrendan errepikatze asmoa dute; Bidatz Berriozabalgoitiak, adibidez. Bigarren postuan, oster, Ane Etxeita joango da. *Herriarentzat lanean* da udal hauteskundeetarako aukeratu duten leloa.



Garaiko Herriko Taldeko zerrenda osatu dutenak, talde argazkian.

DURANGALDEA ASTEON

Bizikleta martxa kofradietatik

IURRETA > Domekarako 26. Kofradietako Martxa antolatu du Iurreta txirrindulari elkarteak. 09:30ean plazan hasita, 35 kilometroko martxa egingo dute. Aurten, Oiz magaleko bideak ezagutuko dituzte. Izenematea egunean bertan izango da, 08:30etik aurrera. Lizentziadunek 5 euro ordainduko dute; ez dutenek 19 euro.

‘Azurmendi’ jatetxea, Europako onena

ZORNOTZA > Jatetxeak sailkatzetarako orduan prestigio handikoa den OAD (Opinionated About Dining) gidak 2015eko zerrenda jakinarazi du, eta Eneko Atxa zornotzarrak Larrebartz duen Azurmendi jatetxea kokatu dute lehenengo tokian. Axpeko Etxebarri erretegiak ere emaitza ona lortu du; hamargarren tokian dago.

Maiatzeko iPada 403.914 zenbakiak

DURANGO > *Salerosketak beuskeraz* kanpainako azken zozketaren irabazlea 403.914 zenbakia izan da, eta Barrenkaleko Naturalki belar dendan banatu dute. Ordezko zenbakia, berriz, Kurutziazako Akebia Lorak loradendan banatu dute, eta 400.127 zenbakia du txartelak.

Iritzia



astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - lurreta
• Izen-abizenak • telefona
• helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoan eta emandako iritzien erantzukizunik.



“Jantokitik harago, ikastetxeko familia guztien filosofian eragin gura dugu”

Durangaldean ekoiztako sasoiak sasoiko barazki ekologikoak sartu dituzte Kurutzia ikastolako jantokiko menuan; hezkuntza proiektu baten barruan garatu gura dute Elikatu Poza egitasmoa

> BERBAZ Aitziber Basauri
Sasoiak sasoiko produktuak, inguruko baserritarrek ekoiztakoak eta ekologikoak sartu dituzte jantokiko menuan, Kurutzia ikastolan. Iazko ikasturtean, dilista eta arroz ekologikoa, eta menu orekatu bat (hilean behin proteina begetala jaten dute) sartu zituzten. Irailan, barazkiak gehitu zituzten. Horretarako, lurretako, Izurtzako eta Abadiñoko baserritarrekin hasi dute elkarlana. Alazne Intxauspe da baserritar horietako bat, eta, Aritz Izagirre ikastolako gurasoetako bat.

Nola sortu zen egitasmoa?
Aritz Izagirre: Gure umek jandakoa, elikagaien jatorria... Guraso talde batek partekatutako kezka horretatik abiatu zen proiektua, jakion kalitatea hobetzerik bazegoela ikusita. 2013ko urtarrilean hasi ginen lanean, eskolako jolastokian sortutako ardura horretatik abiatuta, janari ahalik eta bertakoena, sasoiak sasoikoa eta, posible balitz, ekologikoa erabiltzeko. Informazioa batzeko (jatorduak, gestioa...) ikastolagaz batzartu ginen, eta sinadura bilketa bat ere egin genuen. Lehenengo pausoa diagnostiko bat egitea izan zen.

“**Gero eta gehiago arduratzen gaitu jaten dugun horren kalitateak**”

Horrela gauzatu da ekimena.
A. Izagirre: Gurasoek esku hartzeko genituen aukerak eza-gutzeko eta jakien jatorria eza-gutzeko ikastolako zuzendaritzagaz eta Auzolaguneko -janaria ekarri eta bertan kozinatzen duen enpresa- ordezkariekin batzartu ginen, sumatzen genuelako hobetu zitekeela. Barazkiak edozein tokitatik etorri zitezkeela ikusita, EHNEgaz ere batzartu ginen. Inguruko baserritarrekin sare bat eratu, eta elikagaiak ekoizteko eta eskaintzeko zerbitzua sortzeko aukeraz jardun genuen.

Bertakoa eta sasoiak sasoikoa kontsumitzea sustatu behar da?
A. Izagirre: Sasoiak sasoikoa erabilia, janariaren kalitatea asko hobetzen da, eta, bertan

ekoiztakoak izanik, bertako ekonomian ere eragiten dugu.

Alazne Intxauspe: Guk ere filosofia horri helduta egiten dugu lan. Ekologikoki bertako produktua askoz osasuntsuagoa delako; ekonomikoki bertako ekonomia indartzeko balio duelako; eta, sozialki beste gizarte eredu baterantz joateko bidea ikusten dugulako. Horrexegatik lantzen dugu elikadura burujabetza. Gurasoek eskatu eta guk ekoizti: filosofia berean biltzen gara.

Gaur egungo jateko ohiturak ez dira batere osasuntsuak?

A. Izagirre: Ez nuke horrenbeste esango. Aspektu asko daude hobetzeko, bakoitzak bere etxean ere bai, baina, kontzientzia hartu, eta, filosofia honi jarraituz gero, asko hobetu daiteke. Azken urteetan produktu industrial piloa merkaturatu da, eskaintza zabala egon da, eta, lanez gainezka bizi garen honetan, produktu horiek kontsumitzeko joera egon da; hala ere, gero eta gehiago arduratzen gaitu jaten dugun horren kalitateak. Ikastolan 700 menu ematen dituzte, baina 1.000 ikasletik gora daude. Gure helburua jantokitik harago doa, familia horien

“**Baserririk eskolekin eta gizarteagaz duen lotura berreskuratu beharra dago**”

filosofian eragin gura dugu. Horretarako, hezkuntza proiektu baten barruan sartu gura dugu hori guztia. Bidea dago egiteko.

Bestelako elikadura eredu bat sustatu gura duzue.

A. Izagirre: Jantoki batean bisualizatzen da proiektua, baina hezkuntza proiektu baten barruan sartuta garatzea gura dugu. Adibidez, beste elikadura eredu bat, jasangarritasuna eta osasun ohitura egokiak sustatu behar direla uste dugu. Irakasle bultzada eta konplizitatea bultzatu gura dugu.

Horrelako ekimenak zabaldu beharko liriteke?

A. Intxauspe: Baserririk gizarteagaz eta eskolagaz dituen loturak galdu egin dira, eta ga-

rrantzitsua deritzogu hori berreskuratzeari. Umek ikusi behar dute baserria zer den, zelan geratu den... Bideragarria? Ezagun da Euskal Herrian lehen sektorea zelako egoeran dagoen. Prosezu baten barruan ulertu behar da dena, bide bat egin behar da. Ikastetxetan bakarrik ez, toki guztietan egon beharko liriteke bertan ekoiztako produktuak, osasuntsuena, kulturalki egokiena, eta ekonomikoki eta sozialki onena delako. Elikadura negozio bihurtu dute, eta gure eskubidea dela defendatu behar dugu, zer jaten dugun jakinda. Osasuntsua dena eta inguruarentzat egokia dena kontsumitu behar dugu.

Horretarako horrelako ekimenak garrantzitsuak dira.

A. Intxauspe: Bai. Guk Iurretan ekoizten dugu, eta gugaz proiektu honetan dauden beste baserritarrek Izurtzan eta Mendiolan ekoizten dute. Prezio duin bat adostuta eskaintzen dugu zerbitzua.

A. Izagirre: Egia da prezioa muga bat izan dela, baina adostasun batera heldu gara, eta kuota ez igotzea lortu dugu.

Elikadura ohituretan eragiteko ekimenak garrantzitsuak dira.

A. Intxauspe: Oso garrantzitsuak, bai ondo jateko, bai baserritar hasi berri askori aukera bat emateko.

A. Izagirre: Gizartean badago gaiarekiko ardura. Sare publikoan ere guraso elkarteetatik eskatu zaio Eusko Jaurlaritzari esku hartzeko.

> **MUSIKA** Itsaso Esteban

Bost kontzertuko programaren aurkezpen ekitaldia egin zuten San Antonio ermitan, martitzenean. David Latxaga alkateak, Andoni Agirrebeitia kultura zinegotziak, Luisja Ugarte kultura programatzaileak, Maria José Cano Musikene eskolako ordezkariak eta Armelle Morvan sopranoak aurkeztu dute 2015eko Eleizetan zikloa.

Luisja Ugarte programatzaileak azpimarratu zuen, azken urteetan bertan emanaldirik programatu barik egon ostean, San Antonio ermita programaren barruan sartu dutela berriro. Gainontzeko emanaldiak Boroako San Pedro, Dudeako San Migel eta Bernagoitiko San Migel ermitetan, eta Etxanoko Andra Maria elizan izango dira.

Armelle Morvan Musikeneko ikasleak eman zituen maiatzaren 23ko Elgezabalgo San Antonio ermitako emanaldiaren inguruko azalpenak. Judit Martinez ikaskideagaz, eta Javier Gonzalez Sarmiento irakasleak lagunduta, besteak beste, XIX. mendean, Alemanian zein Frantzia sorturiko doinuak kantatu dituzte Morvanek.

Maria José Cano Musikeneko ordezkariak azpimarratu zuen Eleizetan zikloaren estilokoek musika ikasleei eskaintzen dieten aukera paregabea dela: "Guretzat oso inportantea da gelan lantzen dugun hori erakusteko aukera edukitzea, eta, kasu ho-

Xabier Amurizak bere olerkien errezitaldia eskainiko du, musikak lagunduta, Zornotzan

Amurizaren emanaldia eta zuzeneko beste lau musika emanaldi dakartzen Eleizetan programa aurkeztu dute



San Antonio Elgezabal basilikan egin zuten, martitzenean, zikloaren aurkezpena.

netan, ezin leku bereziagoan egin ahalko dugu hori, musikarientzat inspiragarria den hau bezalako leku batean".

Zapatu honetan, maiatzaren 9an, Miquel Bofill Sax Quartet taldearen kontzertuagaz hasiko da aurtengo zikloa. Boroako San Pedro ermitan joko du, 20:00etatik aurrera. Bofill saxofonista ospetsuak 80ko hamarkadan abiatutako proiektua da laukote hori, 2010ean berrartu zutena.

Amurizaren poesia

Bestalde, Zornotzako musika ziklo honetarako prestaturiko poesia emanaldia eskainiko du Xabier Amurizak, maiatzaren 15ean. Joe Gonzalez saxofonistak, José Luis Canal pianistak eta Fran Lasuen biolinistak lagunduta, berak sortutako olerkiak errezitatuko ditu, Dudeako San Migel ermitan. Musika eta poesia eskainiko dituzte, 20:00etan hasita.

Nazioarteko proposamen bik biribilduko dute aurtengo Eleizetan. Batetik, maiatzaren 17rako, Leos Janaçek ganbera-orkestraren emanaldia antolatu dute. Etxanoko Andra Mari elizan izango da emanaldi hori, 12:15ean. Bestetik, Driss El Maloumi hirukoteak zuzenean eskainiko duen musika arabiarra entzuteko aukera izango da, maiatzaren 31n, Bernagoitiko ermitan.

Maiatzaren 9an, 20:00etan
Miquel Bofill Sax Quartet, Boroan

Maiatzaren 15ean, 20:00etan
Xabier Amuriza, Dudean

Maiatzaren 17an, 12:15ean
Leos Janaçek, Etxanon

Maiatzaren 23an, 20:00etan
Musikeneko ahotsak, Elgezabalen

Maiatzaren 31n, 12:15ean
Driss El Maloumi, Bernagoitian

L'Atelier eskolaren eskutik, dantza kalera aterako dute, bihar eta etzi

Dantzaren Nazioarteko Egunaren harira, egitarau zabala prestatu dute Durangon



Aitziber Irigoras alkatea eta L'Atelier eskolako Oiane Azkonizaga, aurkezpenean.

> DANTZA

L'Atelier dantza eskolak Durangoko Udalaren laguntzagaz antolatu du Dantzaren Nazioarteko Egunaren inguruko egitaraua. Bosgarren urtea da "dantza kalera ateratzeko" hitzordu hau antolatzen dutena, eta Oiane Azkonizaga L'Atelier eskolako zuzendariak eta Aitziber Irigoras alkateak aurkeztu dute aurtengo edizioa. Azkonizagaren berbetan, dantzarien eta gonbidatuen artean, 400 partaide inguru ibiliko dira ekitaldietan. Izan ere, Azkonizagak azpimarratu duenez, "nabaria da azken urteetan dantzaren inguruko kultura errotzen dabilela Durangon".

Bihar iluntzean egingo dute lehenengo ekitaldia, eta, etzi, askotariko emanaldiak eta

ekintzak izango dira egun guztian. Andra Maria basilikan, 20:00etan izango da lehenengo hitzordua. L'Atelier eskolako dantzariak ariko dira, Durango hainbat musikariren zuzeneko musikagaz: Gehizazpi biolontxelo taldea, Bartolome Ertzilla musika eskolako kantariak eta orkestra, Bogoroditsie abesbatza, Ion Ugarriza, Kukulagara bikotea eta L'Atelier kantu taldea gonbidatu dituzte dantza emanaldiari doinua jartzera. 12

Azkonizagaren berbetan, dantzarien eta gonbidatuen artean, 400 partaide inguru ibiliko dira ekitaldietan

Landako Gunean eta inguruetan egingo dituzte biharko ekintza gehienak. Tronperri, Txoritxu Alai eta Kriskitin taldeen dantza emanaldiagaz hasiko da egitaraua, 11:00etan, eta, goizean, besteak beste, umeentzako tailerrak eta ballet ema-

naldiak izango dira Landako Gunean. Bestalde, zirkua, dantza edo antzerkia egiteko, eta kantuan aritzeko aukera eskainiko diete bertaratzen diren umeei, 11:30ean hasiko diren tailerretan. Ondoren, eguraldi ona eginez gero, San Agustin kulturgunearen aurrealdeko barran emanaldia eskainiko dute dantza ikasleek, 13:00etan.

Dantzariak, euren senitarteak eta lagunak Plateruenean elkartuko dira bazkaltzeko, eta 18:00etan ekingo diote arratsaldeko egitarauari. Parte hartu gura duten guztiek irakasle adituen jarraibideekin kaleko dantzen oinarriko mugimenduak ikasteko aukera izango dute, 18:00etatik aurrera; funka, hip hopa, *breakdance* estiloa eta jazz lirikoak probatu ahalko dituzte.

L'Atelier eskolakoek dantza garaikideko emanaldia eskainiko dute 19:00etatik aurrera, eta, ondoren, 19:45ean, dantzarien arteko norgehiagoka izango dute. Dantza eskolako irakasleek emango dizkiete, 20:30ean, dantzari onenei sariak.

Zugan Ni gazte antzerkigileen tailerra amaitutzat emateko jaia

Durangoko San Agustin kulturgunean eskainiko dute bihar, 20:00etan, jaialdia

> ANTZERKIA Itsaso Esteban Ikasturte honetan Zugan Ni jaialdiaren barruan lantzen ibili diren antzerki obrak erakutsiko

dituzte, datozen asteetan, eskualdeko hainbat antzerkilari gaztek. Asteburu honetan, Durangoko San Agustinen eskaini-

ko dute jaialdia, eta, maiatzaren 17an, Zornotza Aretoan, esaterako. Bihar, 20:00etan hasiko den Durangoko doako emanaldian



13 eta 18 urte arteko gazteek hartu dute parte ekimenean.

Aire zabaleko pintura lehiaketa, Berrizen

Hamaseigarren ekitaldia izango dute biharkoa

> PINTURA

Aire zabaleko pintura lehiaketaren hamaseigarren edizioa egingo dute, bihar, Berrizen, Udalak antolatuta. Goizean goizetik eguerdira arte herrian zehar ibiliko dira artistak euren margolanak osatzen, eurek hautaturiko herriko irudietan oinarrituriko koadroak margotzen. Lanen formatuari eta teknikari dagokienez, ez dago ezelako mugarik lehiaketan. Baldintza nagusia da margolariak 16 urte-etik gorakoak izan behar dutela.

Parte hartu gura duten margolariak 09:00etatik 10:00etara arteko tartea edukiko dute euren euskarriak zigilatzeke, eta 14:00etatik 14:30era arteko euren lanak lehiaketara aurkezteko. Kultur Etxean zigilatuko

dituzte euskarriak, eta leku horretan entregatu beharko dituzte margolanak.

18:00etan, Kultur Etxeko ekitaldian jakinaraziko du epaimahaiak bere erabakia zein den: 600 eurokoa izango da lehenengo saria, 500 eurokoa bigarrena eta 400 eurokoa hirugarrena. Gainera, lehenengo hiru sailkatuen artean berriztarren baten lanik ez badago, herriko lanik onenari 300 euroko sari berezia emango diote.

Antolatzaileek aurreratu dute, aurreko urteetan bezala, lehiaketara aurkezturiko lanak erakusketa batean ipiniko dituztela. Maiatzaren 9tik 29ra, Berrizko Kultur Etxean egongo dira ikusgai bihar egingo dituzten artelan guztiak.

Kontzertu didaktikoak, Durangoko musika eskolan

5 eta 7 urte arteko zuzenduriko kontzertuak dira

> MUSIKA

Iurretako eta Durangoko ikastetxeetako 5 eta 7 urte arteko 800 eskola umeri kontzertu didaktikoak eskainiko dizkiete. Astelehenean egin zuten lehenengo emanaldia, eta maiatzaren 11n eta 15ean egingo dituzte beste bi saioak. Eskola orduetan izango dira emanaldiak, eta egun bakoitzean bi saio eskainiko dituzte; 15:00etan eta 15:45ean.

Iaz ez bezala, aurten musika eskolako ikasleak izango dira kontzertuak eskainiko dituztenak. Gazteen musika bandak *Pedro eta otsoa* ipuina taularatuko du 5 eta 6 urtekoentzat. Lorena Rodriguez irakaslearen zuzendaritzagaz prestatu dute ipuin ezagun horren moldaketa. Orkestra gazteak eskainiko

eskainiko dituzte ikasturte honetako antzezlanak.

Durangoko, Iurretako, Eloorrioko, Zornotzako eta Igorreko ia 100 gazte parte hartu dute, aurten, gazteak antzerkigintzara gerturatzea helburu duen ekimen honetan. 13 eta 18 urte artekoak izan dira Zugan Ni ekimeneko parte-hartzaileak.

Zugan Ni ekimenaren zortzigarren edizioa izan da aurten goa, eta maiatzeko jendaurreko emanaldiokin emango dute amaitutzat. Biharko Durangoko hitzorduaren ostean, maiatzaren 17an, Zornotzan elkartuko dira antzerkigile gazteak.

Markeliñe antzerki taldeak koordinatzen duen antzerki tailerrean, ikasturte honetan sortutakoa erakutsiko dute

Markeliñe antzerki taldeak koordinatzen du Zugan Ni, eta ekimenean parte hartzen duten antzokien laguntzagaz antolatzen du egitasmoa.

GEURE DURANGALDEA

JOSE MARTIN URRUTIA, 'TXOTXE'

Irakaslea



Enarak

Aurreko zutabetxo batean, ongietorria eman genion Eduardo Galeanori, Bilbora etorri zenean, eta, oraingo honetan, agurtu beharrean gaude, apirilaren 13an hil baitzen, Montevideon. Zorionez, hor ditugu berak idatzitako liburuak (*Los días siguientes, Las venas abiertas de América Latina, Patas arriba, La escuela del mundo al revés...*).

Harritu egin naute beti bere azkartasunak, bere txispak, gizarteko gatazkak islatzeko duen gaitasun magikoak eta bere herriaren historia berreskuratzeko egin duen lanak inon idatzita ez zegoen historia berreskuratzeko-. Harrigarria da, bere liburuaren bat hartu eta atzealdeko orrialdeetara joz gero, erabiltzen zuen bibliografia zabala. Zenbat irakurtzen zuen gizon honek liburu bat idazteko! Ziurrenik, detalle minino horretan oinarritzen da jenio honen talentua.

Udazkenean, enarek utzi egiten gaituzte, baina, joaten direnean, balkoiko bazterretara edo etxeko kanpoaldeko sabaietara begiratu gero, utzi dituzten habiak hantxe ikusten ditugu.

Galeanok ere utzi gaitu, baina bere liburuak hor daude, enarak utzi dituzten habiak bezala. Egutegiari erreposo bat egiten badiogu, enarak bueltatzeko sasoi dela konturatu gara. Arretaz jarraitu baditugu hegazti hauen joan-etorriak, gero eta gutxiago daudela ohartuko gara. Herriko eta hirietako kutsadura, pestizidak...

Euren txioak eta hegaldi sinestezinak faltan botatzen ditut nik, Galeano bezalako idazleak bezala.

Recortes
Montse Samagarte
& Nouveau Colombier
Maiatzaren 8an
20:30etan

Zugan ni eguna
Durangoko Kunitziaga
ikastokako taldea / Elomoko
taldea / Iurretako taldea /
Durangoko Jesuitak taldea
Maiatzaren 9an
20:00etan

**ZUGAN NI
EGUNA**

Martinak bere istorioa
aurkitu zueneko
Mauma elkarrizketa
Maiatzaren 10ean
18:00etan

**3LINE
GOAK**

San Agustín
KULTUR
GUNEA

PLATERUENA

Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.net
Londakoa etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

**JAT
ETX
EA**

EGUNEKO
MENUA
ASTELEHENETIK
OSTIRALERA

MAIATZAK 8
21:30etan
**DURANG(H)OTS
JAM SESSION**
MELIJA PONTIELIJA

MAIATZAK 13
19:00etan
LABURBIRA
KUSUNTZEN-LEKUA

MAIATZAK 15
21:00etan
**DURANGO'S
PUB QUIZ**
LITAKAIA

Ikusmen arazoak eta lesioak saihesteko, eguzkiarengandik babestea beharrezkoa da

Landako optikan aholkularitza espezializatua eskaintzen dute, eguzkitako betaurrekoak bakoitzaren beharren arabera aukeratzeko



Udaberriagaz batera, begiak eguzkiarengandik babesteko ordua heldu da. Ildo honetatik, Durangoko Landako optikak eguzkitako betaurrekoetan aholkularitza espezializatua ematen du. Lourdes Arrizabalaga Landako optikako adituak dioenez, “azala eguzkiarengandik babesteko ohitura dugun moduan, begiekin ere antzeko zerbait egin behar da”. Eguzkitako betaurrekoak jartzen direnean, argi kopuru jakin bati ez zaio begira heltzen uzten, eta bisioa iluntzen du. Horrela, begietako nekea gutxitu egiten da, eta ikusmenaren pertzepzioa gehitu.

Baina zelan aukeratu betaurreko egoki bat? Betaurrekoak optika edo denda espezializatu batean erostea oso garrantzitsua da. Lehenik eta behin, izpi ultramoreetatik babestea da garrantzitsuena. Hortik aurrera iragazki ezberdinetako lenteak aukeratu daitezke. Otik 4ra bitarteko kategorietan banatzen dira,

ematen duten babesaren arabera. Erabilienak 2 edo 3 kategorietakoak izaten dira.

Bakoitzaren gustuen arabera, iragazki kategoria alde batera utzita, koloretako lenteak aukeratu daitezke. Kolore bat edo beste aukeratu, denek babesten dute berdin, bakoitzaren kategoriaren arabera. Gainera, badaude beste aukera batzuk. Lente polarizatuak, esaterako, urak, elurrak eta asfaltoak eragindako erreflexu horizontalak kentzen ditu. Lente fotokromatikoak, ostera, argia dagoenean ilundu egiten dira, eta iluntasunean argitu. Ispiludun lenteek, gainazalean duten estalduraren eraginez, argiaren parte bat islatzen dute, eta argi hori ez da begira heltzen. Elurretan edo itsasoan kirola egiteko gomendagarriak dira.

Umeak eta betaurrekoak

Hondartzan, mendian eta elurretan umeek eguzkitako betaurrekoak erabiltzea beharrezkoa da. Hala ere, ohiko eguzki esposizio batean ez da komeni: “Begiak iragazki lana egiten du, eta eguzkiarengandik babesten ikasi behar du. Umeari txikitatik edozein egoeratan betaurrekoak ipiniz gero, fotofobia izan dezake”.

EGUZKI IRAGAZKIAREN KATEGORIA	EZAUGARRIAK	XURGATZE MAILA	ERABILERA	MURRIZKETA	PIKTOGRAMA
0	Lente oso argiak	%0 - %9	Barrualdean edo zeru estalietan	Bat ere ez	
1	Apur bat koloreztatuta	%20 - %56	Eguzki argitasun apur bat dagoenean (hirian)	Gauzez gidatzeko ez dute balio	
2	Erdizka koloreztatuta	%57 - %81	Tarteko eguzki argitasuna dagoenean		
3	Lente oso koloreztatuak / Lente ilunak	%82 - %92	Eguzki argitasun handia dagoenean (hondartzan eta mendian)	Ez dute gidatzeko balio	
4	Lente oso ilunak	%93 - %96	Muturreko eguzki argitasuna dagoenean (eskiatzean eta goi-mendietan)		

Astelehenetik barikura:

09:30-13:00

16:30-20:00

Zapatuetan, goizez.

Juan Mari Altuna, 22
DURANGO

Tel.: 946 814 999

optika@landakooptika.com

f landakooptika

Landako optikak, ohiko optika denda bateko zerbitzuez gainera, beste aukera batzuk eskaintzen ditu. Durangon, berritzailea da optometriaren esparruan. Ikasteko arazoan gainean ohartarazten du, eta gaitz horiek tratatzen ditu, ikusmen disfuntzioak aintzat hartuta.

GRADUZAZIOAK
BEGIEN AZTERKETA
UMEEN OPTOMETRIA
BEGIEN TERAPIA
UKIPEN LENTEAK
TONOMETRIAK
TOPOGRAFIK
IKUSMEN URRITASUNA
AUDIOLOGIA
OSASUN OKULARREAN
ESPEZIALISTAK





Elorriko Ateneoan aurkeztuko du, bihar, Sermond's laukoteak lan berria; 'Libelula' izenburua du diskoak, eta taldearen laugarrena da.

Sermond's: "Rockaren aniztasunari lekua egin diogu, baina gure ezaugarriak galdu barik"

Orain zazpi urte taldea sortu zuten herrian, Elorrion, joko dituzte 'Libelula' disko berriko kantak, lehenengoz

> MUSIKA Itsaso Esteban

Taldearen entsegu lokalaren gaineko Ateneo aretoan aurkeztuko du Sermond's laukoteak *Libelula* izenburuko disko berria, bihar, 22:30etik aurrera. Koldo Zubia taldeko baxu-jotzaileak aurreratu du "betiko jarreragaz" egingo dutela zuzeneko, orain bi urte *Bidegurutzean* hirugarren diskoa gaztetxean aurkeztu zutenean bezala: "kantutik kantura tarte gutxi utzita, azkar eta bolumena hamarrean jarrita". Disko berriko sei kantak eta orain arte zuzenekoetan jo izan dituzten hainbat kantu ere eskainiko dizkiete Ateneora bertaratzen direnei. "Kontzertu dinamiko eta dibertigarria izatea" espero dutela adierazi du Zubiak.

Bidegurutzean lanagaz hartu zuten norabideari eutsi, eta sei kantuz osatu dute *Libelula* diskoa. Sermond's taldeko kideak azaldu duenez, bai konposatzean, bai grabazioan gustura egin zuten bidea izan zelako erabaki dute formatu bera baliatzea. Gainera, disko osoak barik kanta solteak entzuteko dagoen joerak ere horretarako arrazoiak ematen dituela uste du.

Koldo Zubia baxu-jotzailea: "Biharkoa ere kontzertu dinamiko eta dibertigarria izan dadin saiatuko gara"

Joan zen astean ipini zuten diskoaren aurkezpen kanta Interneten entzungai. *Balen kontra* izena du, eta, aurreko disko abestiak bezala, erritmo pisutsuko kanta da, taldearen marka den *stoner* eta punk estiloen arteko nahasketaren adibide. Zubiaren berbetan, "aurreko

diskoaren linea" mantentzen ahalegindu dira honetan ere. Azpimarratu du disko honetan inoiz baino gehiago landu dituztela ahotsak, eta uste du horrek sendotasuna ematen diola azken emaitzari. Rockaren aniztasunari lekua eginda, "baina Sermond's taldearen ezaugarriak

galdu barik" osaturiko kantak direla dio taldekideak.

Ahotsak bereziki landu dituzte, eta gizartearen zein norbainakoon jarrerari buruzko letrak bildu dituzte disko berrian. Zubiaren berbetan, "beharbada, kritika ez da aurreko diskoetan egiten genuena bezain zuzena, baina bai landua".

"Laukote gisa inoiz baino gusturago gabiltza: bakoitzak bere espazioa du taldean, eta ondo ulertzen dugu elkar"

Sermond's taldearen jarduna erritmo bizikoa izan da, orokorrean: lau disko kaleratu ditu zazpi urtean, eta Euskal Herrian zehar kontzertu asko eskaini ditu. *Libelula* diskoaren sorkuntza prozesuan, aldiz, "makina asko moteldu ez arren, lasaiago hartzea erabaki genuen", dio Zubiak, eta erabaki horrek azken emaitzan eragin positiboa izan duela uste du musikariak.

Zazpi urte dira Sermond's taldea sortu zutela, eta Koldo Zubia taldekidearen berbetan, "laukote bezala inoiz baino gusturago gabiltza: bakoitzak bere espazioa dauka taldean, eta ondo ulertzen dugu elkar".

Gipuzkoako hiru herritan aurkeztuko dute disko berria, maiatzean eta ekainean

Kontzertu horietan eta Durangaldeko hainbat tabernatan salduko dute diskoa



Ibon Urizarrek diseinatu du diskoaren azala.

Kontzertuetan eta Durangaldeko hainbat tabernatan ipiniko dute Sermond's taldekoeak laugarren diskoa salgai. Eta, Koldo Zubia taldekideak azaldu duenez, hainbat hitzordu lotu dituzte, dagoeneko, zuzenekoetarako: maiatzaren 15ean Azkoitiko Zurt tabernan joko dute, 23an Bergarako jaietako txosnagunean, eta ekainaren 13an Donostiako Gros auzoko Kortxoenea gaztetxean aurkeztuko dute disko berria. Beraz, *Libelula* lanaren ale bat eskuratu gura duenak kontzertu

horietan edukiko du diskoa erosteko aukera.

ARF lehiaketan

Gasteizko ARF Rock Party musika lehiaketan parte hartzeko aukera eduki du, martxoan, Elorriko Sermond's taldeak. Agenda arazoengatik lehiaketa utzi behar izan zuen talde baten ordezkari jo zuten. Mila talde eta bakarlaririk gora aurkeztu ziren lehiaketa horretara, eta, irabazi ez arren, oso pozik daude taldekideak esperientzia horregaz. "Finalera pasatu ahal izatea oso zaila zen, baina, aukera eduki genuenez, ahalegin handia egin genuen" dio Zubiak. "Kontzertu berezia izan zen, eta ezagutzen ez genituen bi talde ezagutu izana ere oso aberasgarria izan da".

Arrieta podólogo

Borobinara Urreta Jainaga

- Oinetako patologiak
- Neurria egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

HERNANI
MARRATU

Herriko gudarien kalea, 10, behea
48200 - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

R.P.S. 21406

ekin ner group

ekin S. Coop.
Arriagane industrialdea (Boraa auzoa)
48340 Zornotza (Bizkaia) Spain
www.ekin.es

Produzio fabrikak Brasilen, Indian eta Mexikon



Zornotzak eta Cambadosek Larrean jokatu zuten lehen partiduko irudia. Zornotza Saskibaloia Taldea

Historia egiten jarraitzeko asmoz joango da Zornotza Guadalajarara

Urrezko Ligara igotzeko finalurrekoa jokatu du historian lehenengoz

> SASKIBALOA J. Derteano Zornotza Saskibaloia Taldeak Urrezko Ligarako igoera fasearen finalurreko kanporaketa hasiko du gaur, Guadalajarara. Sekula ez da hain urrun heldu, baina taldea ez da egindakoagaz konformatzen. Presio barik eta ilusioz gainezka, historia egiten jarraitzeko prest dago.

Igoera faseko final laurdentan, Galiziako Xuven Cambados kanporatu du: 2-0. Etxean nagusitasunez irabazi (91-70), eta kanpoan latz sufritu du: 73-75. Ander Garciak azken segundoan lortu zuen garaipenaren saskiratzea: "Oso pozik eta harro gaude taldeak egindako lanagaz", adie-


razi du Mikel Garitaonandia entrenatzaileak.

Guadalajararen kontrako kanporaketa oraindino erronka handiagoa izango da. Garitaonandiaren ustez, Guadalajarako jokalariek "seguruenik ligako talderik sendoena osatzen dute gaur egun". Batez ere, partiduan euren jokamoldea ezartzea lortzen dutenean dira arrakatsuenak; baloi jabetzak luzatzea gustatzen zaie, jokoa presarik gabe antolatzea. Horregatik, "oso garrantzitsua izango da euren erritmo geldotik irtetea". Zornotzaren helburua erritmo biziagoan jokatzeko ahalegintzea izango da: "Guk erritmoa behar

dugu, eta, hori lortu ezik, oso zaila izango da partidu bat irabaztea han. Alaitasunez jokatu behar dugu. Hori lortzen badugu, irabazteko aukera izango dugu. Gu ilusioz goaz".

Aurreneko biak kanpoan

Igoera faseko finalera sailkatzeko hiru partidu irabazi behar dira. Aurreneko biak Guadalajarara jokatu dituzte, gaur eta domeka arratsaldean. Hurrengo partidu biak Zornotzako Larrea kiroldegian izango dira, maiatzaren 15ean eta 17an. Bosgarren partidu baten beharrik balego, berriro Guadalajarara joan beharko lukete zornotzarrek.



Ander Garcia (Bergara, 1989)
Zornotza taldeko jokalaria.

"Taldeak badu gaitasuna Guadalajarara irabazteko"

Galizian jokatuako partiduko protagonista nagusienetakoa Ander Garcia bergararra izan zen. Sartutako 14 puntuetatik azkenengo biak ez ditu berehalakoan ahaztuko; taldeari garaipena eman zioten azken segundoan.

Zelan bizi izan zenuen azkenengo jokaldi erabakigarria? Partidua nire saskiratze horrekin amaitzea... Ametsik onean ere ez nuke horrelakorik pentsatuko! Errebotea jaso, eta denborari begiratu gabe jaurti nuen. Ez nekien saskiratzea denboraren barruan izan zela ala ez epaileak baiezkoa adierazi zuen arte.

Etxean nagusitasunez irabazi arren, bazenekiten hango partidua ez zuela hemengoagaz zerikusirik izango. Zaleek goraino betetzen dute kantxa, giro ederra egoten da... Bagenekien erronka zaila zela eta partidua detaileek erabakiko zutela. Azkenean, detaile hori gurea izan zen, baina alde batera zein bestera joan zitezkeen garaipena.

Partidu berezia zen zuretzat, iaz Galiziako taldean ibili zirelako.

Bai. Horregatik ez nuen, hasieran, saskiratzea ospatu; errespetuagatik eta lagun asko ditudalako han. Partidu amaieran brometan esaten zidaten beste

une bat aukeratu nezakeela saskiratze; baina, egia esanda, zoriondu egin ninduten, eta zorte ona opa zidaten hurrengo kanporaketara begira.

Zornotza Saskibaloia Taldea sekula ez da hain urrun heldu. Zelan sentitzen zarete klubean historia eginda?

Egia da, taldea inoiz heldu den faserik garrantzitsuenean gaude, baina lanean jarraitu behar dugu. Taldea gogor ikusten dut, eta uste dut oraindik historia gehiago egin dezakegula.

Hurrengo erronka Guadalajarara da.

Ezagutzen dugu. Talde gogorra da. Badakigu zer egin behar dugun; lehenengo minututik azkenera borroka egin beharra dago. Beraiei erritmo lasaia gustatzen zaie, eta beste taldea erritmo horretara eramaten saiatzen dira. Joko biziagoa ezartzen saiatu behar dugu guk, eta, hori lortuz gero, eurek arazoak izango dituzte. Uste dut taldeak baduela gaitasuna han irabazteko.

Zelan sentitzen zara Zornotzan? Zelan doa denboraldia zuretzat?

Oso gustura nago Zornotzan. Etxe ondoan nago, Mikel [Garitaonandia] ezagutzen nuen, konfiantza hori badago... Primeran nago.

DRTk garaipen handia eskaini die zaleei, etxeko azkenengo partiduan

Igotzeko aukera barik geratu arren, ospakizuna nagusitu zen Arripausuetan

> ERRUGBIA

Durango Rugby Taldeak 10-5 menderatu zuen Caja Sol Sevilla Ohorezko Mailarako igoera faseko azkenaurreko partiduan. Baina igotzeko aukera barik geratu da. Bonus puntua behar zuen azken jardunaldira esperantza txiki batez hartzeko, baina ez zen posible izan. Hala ere, ospakizuna nagusitu zen partiduen amaieran.

Izan ere, DRT aurreikuspenik baikorrenen gainetik ibili da aurten. Talde askok baino baliabide ekonomiko xumeagoagaz, onenen mailan ibili da.

Horren adibide izan zen joan zen domekako partiduak. Sevillak zelaiko alde guztietan taldeko ordezkariak kokatu zituen, eta pinganilloaren bidez mantentzen zuten hartu-emanan. Adibide horrek erakusten du, baliabideei dagokienez, talde bien artean zegoen desoreka.

Baina zelai barruan ez zen horrelakorik islatu. Oro har, DRT Sevilla baino gehiago izan zen, eta merezita irabazi zuen. Sevillak garaipena behar zuen nahitaez, baina Durangoko taldea sarriagotan egon zen entsegua lortzeko gertuago.

Lehenengo zatia bosnako berdinketaz amaitu zen. Bigarrean, batez ere, zelai erdiko jokoa nagusitu zen, eta partidu berdinketaz amaituko zela zirudien. Baina ez. Arauzko denbora agortuta zegoela, DRTk sevillarren entsegu marratik gertu jaso zuen baloia, eta, mele formazioan jarrita, zentimetro zentimetro egin zuen entsegu-rainoko bidea, zaleak ere bultzatzen eta bultzatzen zebiltzala.

Asteburu bi barru Kataluniako San Cugatzen zelaian jokatu du azken partidu talde durangarrak.



DRTk garaipenaren entsegu lortu zuen unea. Gorka Larrinaga



Biharko txapelketa, eta ekainaren 21eko Juanjo Ziarrustaren oroimenezko I. Atletismo Proba aurkeztu zuten atzo.

Ohorezko Mailara bueltatzea izango du helburu Ibaizabal taldeak, bihar

Kluben Arteko Espainiako Txapelketako probak egingo dituzte, Durangon

> ATLETISMOA Itsaso Esteban Kluben Arteko Espainiako Lehen Mailako Txapelketaren barruko probak jokatu dituzte, asteburu honetan, Durangon. Durangoko Bidezabal taldeko, eta Bidasoako, Oviedoko eta Gijongo taldeetako atletak ibiliko dira lehian, Landakoko atletismo pistan.

Durangoko udaletxean aurkeztu zuten, atzo, Durangora maila goreneko atletak ekarriko dituen ekitaldia. Juan Ignacio Hernandez Bidezabal taldeko presidenteak azaldu zuenez, "iaz galdutako mailara, Ohorezko Mailara, bueltatzeko ahalegina egingo dugu; espero dugu txapelketako lehenengo kan-

poraketa etxean jokatzera abantaila izatea, eta durangarren animoek atletei laguntzea". 35 atleta jardungo dira Ibaizabal taldean –erdia, gutxi gorabehera, Durangaldekoak–.

Biharko ekitaldira hurreratzaren diren ikusleek programa olimpiko guztia ikusi ahalko dute, 17:00etatik aurrera: martxa,

pertika jauzia, xabalina jaurtiketa eta txandakako lasterketa, adibidez. Durangoko atletismo taldeko presidenteak azaldu duenez, sailkatzeko, Durangoko taldearen lehiakide zuzena Bidasoako taldea izango dela uste dute.

Aitziber Irigoras Durangoko alkateak eta Oskar Zarrabeitia Durangoko Amankomunazgo presidentek eskertu egin zioten Ibaizabal taldeari "txapelketa hau antolatzen eta urte guztian bestelakoak antolatzen egiten duen lana". Zarrabeitiak azpimarratu zuen Amankomunazgoa osatzen duten herriek atletismoarekiko duten konpromisoa erakusten duela 2015eko aurrekontuan jasotako diru-laguntzek.

Ziarrustaren omenezkoa

Ekainaren 21ean, Durangon, Juanjo Ziarrusta alkate zenaren oroimenezko I. Atletismo Proba egingo dela ere aurreratu zuten atzoko aurkezpenean. Hernandezen berbetan, proba zelakoa izango den ez dute zehaztu oraindik, baina maila handiko atletak gonbidatzeko asmoa dutela aurreratu zuen. Proba hori Durangon antolatuta, "atletismoa maite dutenek bere laguntasuna eskertu" gura diote duela zazpi urte, alkate zela, hil zen Ziarrustari.

ADITUAREN TXOKOA



Oihana Azkorbebeitia

Mendi lasterketen EHko selekzioko hautatzailea

Badator Zegama

Gezurra badirudi ere, dagoneko urtebete pasatu da lasterketa handi honen inguruan azkenengoz idatzi nuenetik. Eta, beste behin ere, ezin utzi apamen berezi bat egin barik.

Azken urteetan gertatu den bezala, aurten ere Munduko Kopako lasterketa izango da Zegama-Aizkorri, eta bertan mendi-lasterkari onenek hartuko dute parte, maiatzaren 17an. Baina aurtengo Zegama-Aizkorri berritasun batekin dator, aurten, lehen aldiz, kilometro bertikala jokatu baidate bertan. Guztira, 150 parte-hartzaile izango ditu lehen edizio honek, eta Zegaman hasita Aitxuri tontorrera igo beharko dute, 1.520 metro-ra. Kilometro bertikal honek emango dio hasiera aurtengo Zegama-Aizkorri berrituari, maiatzaren 15ean.

Horrela, igandeko maratoian parte hartu ezin izango duten hainbat korrikalarik aukera izango dute lasterketa "txiki" honen bitartez jai handi honen parte izateko.

Berrikuntzekin dator, bai, aurtengo Zegama-Aizkorri, baina, korrikalariei dagokienez, lehenengo lepotik burua. Hilabeteak dira parte-hartzaileak maratoiko ibilbidean gora eta behera entrenatzen hasi zirenetik, eta seguru batek baino gehiagok zenbatuta izango dituela Zegamako irteeran hasi eta helmugara heldu bitartean eman beharreko pausoak. Eta beste batzuek loari kentzen dizkiote orduak bertara joan eta entrenatu ahal izateko, lanera joan aurretik.

Ni aurten ez naiz Zegamako irteeran egongo, baina nire animorik beroenak emango dizkiet parte hartuko duten "zoro" guztiei. Eutsi goiari!

Jesuitak taldeko gazteak irabazle eskolartekoan

> XAKEA Joseba Derteano Elorrioko Txintxirri ikastolan, Bizkaiko Eskolarteko Xake Txapelketa jokatu dute. Benjamin mailan, Durangoko Jesui-

tak taldea geratu zen txapeladun. Elorrioko Zaldi Baltza hirugarren geratu zen. Kimu mailan, hirugarren tokia lortu zuen Abadiñok.



Jesuitak eta Zaldi Baltza taldeen arteko partida, benjaminetan. Zaldi Baltza

Amorebieta lasaitasun bila etxeko azken partiduan

Fuenlabradari irabaziz gero, salbatuta legoke

> FUTBOLA J.D.

Bigarren B Maila amaitzeko jardunaldi bi falta dira, eta Amorebietak etxeko azken partidua jokatu du zapatuan, 17:00etan, Fuenlabradaren aurka. Azken jardunaldiari lasaitasunez aurre egitea ahalbidetuko liokeen garaipena lortzea izango du helburu.

Une honetan, Amorebieta jaitsiera postuetatik bost puntura dago. Garaipen batek mailari eustea ziurtatuko lioke. Fuenlabradak arerio egokia di-

rudi hiru puntuak batzeko, ez duelako ezer jokoan. Sailkapenaren erdian dago.

Rayo Vallecano eta Las Palmas Atlético dira jaitsierako azken postuan eta promozioan dauden taldeak. Madrildarrek Real Sociedad B hartuko dute etxean, eta Las Palmasek Sestaoren kontra jokatu du.

Azken jardunaldian, asteburu honetan bertan matematoki jatsi daitekeen Alcorcón taldearen zelaiari jokatu du Amorebietak.

hitz liburutegia

artekalea, 14 durango
946 810 776
info@hitzliburutegia.com

Aste honetan Hitzek gomendatzen dizu:

<p>HELGENTZAT EZERDIK DERRIGATZEN Wladimir Kamirer (2014)</p>	<p>UME ETA GAZTEENTZAT AKIM IHESI Claude K. Dubois (2014)</p>	<p>MUSIKA SAOKO! The Bomb and Plena Explosion in Puerto Rico 1964-1986 (2012)</p>
---	---	---

Grupo CATALANA OCCIDENTE

RUEDA BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda

Agirre Lehendakari kalea, 8 - 48200 Durango
Tel.: 946 202 710 - Faxa: 946 816 577
posta elektronikoa: jrueda@segurosbilbao.com

Bulegorako zigiluak Fotolitoak

Betikoak flexografia

946 202 241
Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA



Lanerako Langile Trebatuak

ESKAINTZA BUSHAKATZ ETA GAZTOLERRAZ

ESKAINNTZA OSOA

GUI-MAILAKO ZIKLOAK

- Metal-Lanikuntzak
- Web Aplikazioen Garapena
- Mekatronika Industriala

ERDI MAILAKO ZIKLOAK

- Merkataritza Jarduera
- Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Mantentze-lan Elektromekanikoa
- Soldadura eta Galdaragintza
- Mikroinformatika-sistemak eta Sareak

ESKAINNTZA PARTZIALA

- Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Soldadura eta Galdaragintza

SARBIDE-PRODUKTARAKO PRESTAKUNTZA

- Goi maila: sari-erakorra

EMPLEGURAKO PRESTAKUNTZA

- Ererabeko prestakuntza (Hobetuz)
- Langabetuentzako prestakuntza (Lanbide Ikastaroak)

DATAK

Aurrematrikula
maiatzaren 25etik
ekainaren 5era

Matrikula
uztailaren 16tik 21era

Tel: 94 673 02 51

e-mail: info@izornotza.com

www.izornotza.com



Igor Urienek Espainiako Erresistentzia Txapelketako lehen lasterketa irabazi du

Alvaro Bajo madrildarra bikotekide zuela gailendu zen abadiñarra domekako Valentziako lasterketan



Igor Urien eta Álvaro Bajo Valentziako lasterketa irabazi ostean.

AUTOMOBILISMOA E.A. Igor Urien abadiñarrak Espainiako Erresistentzia Txapelketako lehenengo lasterketa irabazi zuen aurreko domekan, Valentzian. Bikoteka lehiatzen den

diziplina da erresistentziakoa, eta Urienek Álvaro Bajo madrildarra izan zuen bikotekide. Hasieran, erritmoa hartzea kostatu egin zitzaion. Lasterketa erdian pilotu aldaketa egin beha-

rra zeukaten, eta bietako inor ez zegoen horretara ohituta. Hori dela-eta, denbora galdu zuten. Hala ere, lasterketaren bigarren zatian denbora hobetzea lortu, eta bere kategoriako lehenengo

postuan amaitzea lortu zuen bikoteak, sailkapen orokorrean hirugarren postua eskuratuta. Izan ere, hiru kategoriak osatzen dute lasterketa orokorra: D4, D5 eta D6 kategoriek. Urien eta Bajo D5 mailan daude. Alde batetik, *scratch* sailkapena dago, hiru mailetako bikote guztiak batzen dituena; baina, bestetik, kategoria bakoitzak bere sailkapena dauka.

Urien oso gustura agertu da garaipenagaz. "Indartsu sentitu gara, hasieratik aurrean, eta gauzak ondo egiten. Pozik nago, bai kotxeagaz, bai bikoteagaz".

Iaz F3 kategorian ibili zen, baina, finantziario arazoak zirela-eta, aldatzea erabaki zuen. Aldaketa nabaria izan dela onartu du, baina gustura dabilela. Gainera, ekonomikoki ere bideragarriagoa dela aitortu du. "Askoz hobe da gastua partekatzea. Lehen adina disfrutatzen dut, baina erdia ordainduta".

Hurrengo lasterketa maiatzaren 31n izango da, Jaramako (Espainia) zirkuituan.

Gorka Bizkarrak Senpereko triatloia irabazi du

> TRIATLOIA E.A. / J.D.

Aurrez emaitza onak lortuta iritsi zen Senperera Gorka Bizkarra -Peñiscolako Ironmanean bosgarren postua eskuratu zuen, eta Getariako triatloian zortzigarren gelditu zen-, eta oraingo honetan irabaztea lortu zuen Triatlon Santander taldeko triatletak.

Bizkarra hamalagarren irten zen igeriketako tartetik, eta, ondoren, atzetik aurrerako bidea egin zuen. Mikel Mujikagaz eta Fernando Barrosogaz iritsi zen T2ra -bizikleta utzi eta korrika hasten den trantsiziara-, lasterketa buruan zen Martin Iraizozengandik 1.40ra.

Iraizozek abantaila polita zeukan bizikletaz egin beharreko zatia amaitzean, baina korrika denbora galduz joan zen, eta, Bizkarrak lehenik eta Barrosok gero, aurreratu egin zuten. Bi horiek lehia estua eduki zuten amaierara arte. Helmugarako itzuli baten faltan, hamabost bat segundoko aldea zegoen bien artean, Bizkarra lehenengo postuan zela. Azkenik, postu horri eustea lortu zuen mañariarrak, eta garaipena lortu zuen (1.57.33).

Pilota eta aisaldia uztartuz, udalekuak ekainean hasita

Abadiñoko eta Durangoko pilota elkarteek 8-14 urte bitarteko gazteentzako udalekuak antolatu dituzte

> PILOTA J.D.

Abadiñoko Tornosolo eta Atxarte pilota elkarteek, eta Durangoko pilota eskolak 8 eta 14 urte bitarteko gazteei begirako udalekuak antolatu dituzte ekainaren 22tik uztailaren 17rako. Kirola eta aisaldia uztartuta, pilota arloko jokamolde guztiak ezagutzeko aukera eskainiko dute (esku pilota, zesta-punta eta paleta, esaterako), eta beste kirol mota batzuekin tartekatuko dituzte (txirrindularitza eta atletismoa, adibidez), eskaintza ahalik zabalena izan dadin.

Horrela, Abadiñoko eta Durangoko pilotalekuetara zein Tornosolo trinketera ez ezik, Landakoko atletismo pista eta Berrizko belodromora ere irteerak egingo dituzte. Amonkomunazgoa, eta Durangoko

Pilotako jokamolde guztiak, zein txirrindularitza eta atletismoa ezagutzeko aukera eskainiko dute

eta Abadiñoko udalak dira ekimenaren laguntzaileak.

Aste bat, bi, hiru edo hilabete osorako izena eman daiteke, eta prezioak 50 eurotik -aste bat-150era -hilabete osoa- bitartekoak dira. Honako e-mailaren bidez egin daiteke izen-ematea maiatzaren 22ra arte: kiroludalekuak@gmail.com. Udalekuak goizetan izango dira, 09:15etik 13:15era, astegunetan.

San Trokaz Pilota Txapelketa Abadiñoko Tornosolo elkarteak trinketeko San Trokaz Pilota Txapelketa abiatuko du gaur. Eskuz binaka benjamin, kimu, promesa eta nagusien mailetan garatuko da txapelketa. Asteburu honetan, kanporaketak jokatuko dituzte. Gaur, 18:15ean, eta, domekan, 10:45ean, gaztetxoek eta nagusien mailako finalak erabakiko dituzte, tartean eskualdeko hainbat pilotari daudela. Zapatuan, 17:00etan, promesen mailako finalaurreko biak jokatuko dituzte. Finalak maiatzaren 15ean eta 16an izango dira.

Oyarbide eta Ilinykh onenak beste behin

> TXIRRINDULARITZA J.D.

Bizkaia-Durango taldeko Yulia Ilinykh eta Lourdes Oyarbide sasoi betean daude. Errusiarrek garaipen bi lortu zituen joan zen asteburuan: Espainiako Kopari zegokion Villasana de Menan (Burgos) jokatuko proba eta Burgosko Itzuliko hirugarren etapa. Bestalde, Oyarbide 23 urtez azpiko onena izan zen Espainiako Kopako proban, eta maila horretako lidergoari eusten dio.

Burgosko Itzulian BZK taldea ere protagonista izan zen, eta sailkapen nagusiko bigarren tokian amaitu zuen Gloria Sánchez txirrindulariak. Junior mailan, Iurretako CAF Transport Engineering taldeko Sandra Alonsok irabazi zuen azken etapa, eta sailkapen nagusian bosgarren amaitu zuen. Bere taldekide Maialen Aramendiak hirugarren amaitu zuen kadete mailan.

Mutiltan ere albiste onak izan ziren. Gazte mailan, Durangoko Beste Alde-La Tostadora taldeko Brannan Fixe amerikarrak garaipena lortu zuen Urduñan. Taldekako garaipena ere lortu zuten.

AGENDA

> FUTBOLA

BIGARREN B MAILA

Amorebieta - Fuenlabrada
· Zapatuan, 17:00etan, Urritxen.

OHOREZKO B MAILA

Elorrio - Derio
· Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden.

MAILA GORENA

Zaldia - Arratia
· Zapatuan, 17:00etan, Solobarrian.

LEHEN ERREGIONALA (gizonak)

Berriz - Arraiz
· Domekan, 18:00etan, Berrizburun.

BIGARREN ERREGIONALA

Iurretako B - San Antonio
· Zapatuan, 17:00etan, Larakozelaian.

LEHEN ERREGIONALA (emakumeak)

Elorrio - Erandio
· Zapatuan, 18:00etan, Eleizalden.

> ARETO FUTBOLA

LEHEN ERREGIONALA

Abadiñoko Gaztetxe - Usansolo
· Zapatuan, 17:00etan, Traña-Matienako kiroldegian.

Presion Break B - Otxartabe B
· Zapatuan, 16:45ean, Berrizburun.

> PILOTA

SAN TROKAZ TRINKET TXAPELKETA

- Kimu maila -

- Iker Arroitauregi-Eñaut Arroitauregi (Olaburu) / Kimetz Mardaras-Paul Bravo (Atxarte)
- Markel Egurrola-Oier Txurruka (Markina) / Gorka Amezuza-Igor Pascual (Zaldia)
· Barikuan, 18:15ean, Tornosolo trinketean

- Lehenengo Maila -

- Mikel Gonzalez - Inhar Ugarte / Laurent Lambert - Antton Amulet
· Barikuan, 18:15ean, Tornosolo trinketean

- Promesen Maila -

- Aitor Arabiourrutia-Ireber Eñaña / Ekhi Ziarrusta-Eneko Uribe
- Alain Prieto-Asier Aspuru / A. Fullaondo-Joseba Bilbao
· Zapatuan, 17:00etan, Tornosolon.

- Benjaminak -

- Unax Azkorbebeitia-Peru Caminos / Peio Gurrutxagabai Arroitauregi
- Peio Iturriagaetxebarria-Ander Escamez / Mikel Egurrola-Ekain Idigoras
· Domekan, 10:45ean, Tornosolon.

- Lehen Maila -

- Iker Gordon-Ander Antxia / Liher Gandiaga-T. Harismendi
· Domekan, 10:45ean, Tornosolon.

BIHARKO IZARRAK TXAPELKETA

- Agirre-Urizar / Elordi Erostarbe
- Peña-Medina / A. Etxebarria-O. Etxebarria
· Maiatzaren 14an, 21:15ean, Mallabiko pilotalekuan.

SAN TROKAZ TXAPELKETA

Finalerdiak:
- Rodríguez-García / Orbegozo-Oliden
- Albizuri-Gorostiaga / Alberdi-Zubeldia
- Arabiourrutia-Madariaga / Mendia-Aspuru
- Prieto-Ibarrondo / Albizu-Pujana
· Domekan, 10:30ean, Zelaietako pilotalekuan.

IBAIZABAL IKASTOLA, KALITATEZKO ESKAINTZA EUSKALDUNA



BATXILERGOA

Giza eta Gizarte Zientzia Batxilergoa, eta Zientziak eta Teknologia Batxilergoa eskaintzen ditugu Ibaizabalen. Batxilergoa etorkizuna prestatzeko etapa erabakigarria denez, Ibaiza-

balen gertutik jarraitzen dugu ikaslearen garapena. Tutoreak jarraipen pertsonalizatua egiten dio ikasleari, aurkitzen dituen zailtasunen aurrean **laguntza eskainiz** eta etorkizunean egin behar dituen

aukeren aurrean **orientazioa** emanez.

Heldutasunera begira, urrats garrantzitsua egiten du ikasleak ikastola honetan; denbora kudeatzen eta zereginak planifikatzen ikasten

du, taldean lan egiten, jendarean hitz egiten eta, batez ere, ikastola honetako balio inportante bat dena, **norbera izaten** ikasten du.

Orientazioaren garrantzia

Bakoitzak bere baitan hausnarketa hori egin dezan bultzatzen dugu, gerora begira ikasi nahi duen horretarako urratsa segurtasunez eman dezan. Pauso erabakigarri horren aurrean, Ibaizabalek **konfiantzazko babes**a eskaintzen dio ikasleari, eta konfiantzazko harreman hori bi ikasturtetan lantzen dugu, eguneroko detail txikiak zainduz.

Ibaizabal ikastola kooperatiba integrala da, eta, egitura horri esker, gurasoek zuzeneko esku-hartzea dute ikastolako erabaki nagusietan. Egiturak berak bermatzen du ikas komunitate osoaren parte-hartzea, eta ezaugarri horrek ikastola guztiona izatea eragiten du. Gure egunerokoan garrantzitsuak diren erabakiak guztion artean hartzen ditugu, ikas komunitatea osatzen dugun guztion iritzia kontuan hartuz.

BATXILERGOA

Aurrematrikula epea:
maiatzaren 4tik 14ra

Ateak irekitzeko eguna:
maiatzaren 11n
18:00etan

Euskal nortasuna oinarri izanik, munduko kulturetara zabalik dagoen ikuspegia lantzen dugu.

LANBIDE HEZIKETA

Haur Hezkuntzako Goi Mailako Zikloa ere eskaintzen dugu Ibaizabalen. Ziklo horrek haurtzaindegietako teknikari lana egiteko zein unibertsitatean ikasteko aukera zabaltzen ditu. Teoria eta praktika uztartzen ditugu ziklo honetan, ikaskidetza edo talde kooperatiboen metodologiak aplikatuz.

HAUR HEZKUNTZAKO GOI ZIKLOA

Aurrematrikula epea:
maiatzaren 25etik
ekainaren 5era

Ateak irekitzeko eguna:
maiatzaren 19an
18:30ean



PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIAK



SOROSLE IZATEKO IKASTAROA

AFDP⁰¹⁰⁹

290 ordu

Datak
2015eko irailaren 25etik
abenduaren 18ra.
15:00-20:00

MENDEKO EGOERAN DAUDEN PERTSONEKIN, ERAKUNDEETAN LAN EGITEKO IKASTAROA

SSCS⁰²⁰⁸

370 ordu

Datak
2015eko irailaren 25etik
2016ko urtarrilaren 28ra
08:30-13:30
** Laneratzetara
%70etik gorakoa

KOMUNITATE BITARTEKOTZA

SSCG⁰²⁰⁹

50 ordu

Datak
2015eko azaroaren 9tik
azaroaren 26ra.

ib: ibaizabal
IKASTOLA

- Konfiantzan, ikastola -

Idazkaritza@ibaizabalikastola.org | 946 215 877 | www.ibaizabalikastola.org

Inmobiliariak

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behea • 946 816 423
48200 DURANGO • Bizkaia

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN

- BERRIZ: 3 logela, jantzia, berogailua eta egogailua. 500n.
- DURANGO: 1 eta 3 logelako etxebizitzak alokagai. 600n hileko.

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO

- MIKELDI: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, komun 2 eta egongela. Ganbara eta garajea. Berriztua.
- FRANTZISKO IBARRA: 4 logela, komun 2, sukaldea, despentsa eta egongela balkoiarekin.
- MURUETATORRE: 3 logela, komun 2, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Garajea eta trastelekua.
- Guztiz berriztutako atikoa. Logela 2, komuna, sukalde-egongela amerikarra. Garajea aukeran.
- KALEBARRIA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. 125.000n.
- ARKOTXA: 4 logela, komuna, bainugela, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Garajea eta ganbara.
- ARTEKALEA: 8 etxebizitza eraikitzen. Logela 1 eta 2koak. Trastelkuarekin. 140.000n-lik aurrera.
- ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoa kanpora begira dago. Berrizteko. Inguru onean kokatua.
- ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. Logela 2, komun 2, sukalde amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.

ATXONDO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Etxe osoa kanpora begira dago. 3 balkoi. Garaje itxia.
- 3 logela, komun 2, sukaldea esekitokiarekin eta egongela. Etxe osoa kanpora begira dago. Garajea eta trastelekua. Berria ematen du.

LEKEITIO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Garajea. Auzune pribatua. Igerilekua eta frontoia.

ABADIÑO

- ITURRITXO: Logela bakarreko apartamentua. Sukalde amerikarra-egongela, komuna eta esekitokia. Ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

ZALDIBAR

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztua. Trastelekua.

LURSAILAK SALGAI

ABADIÑO

- Bi familiako etxebizitza eraikitzeko 1.100 m2-ko lursaila salgai. Inguru egokia.

BERRIZ

- 10.000 m2-ko lursaila. Sarbide ona.

MATIENA-ABADIÑO

- 2.000 m2-ko lursaila. Laua eta fruta-arbolekin.

IURRETA

- 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago.

ABADIÑO

- Bi familiako etxebizitza eraikitzeko 1.100 m2-ko lursaila salgai. Informazio pertsonalizatua.

DURANGO

- Lursail erdia familia biko etxebizitza eraikitzeko. Proiektua barne.

EUBA

- 3.000 m2 eta 3.455 m2-ko lursailak. Lurzati 2, bakoitzean bi familiako etxebizitza eraikitzeko aukerarekin.

ZORNOTZA

- LARREA: 27.000 m2-ko lursaila.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

- ABADIÑO: Gaztelua. Baserría. Sarreran arku eder bat. 20.000 m2-ko lursaila baserri ondoan.

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO. SAN FAUSTO



- Bizitzin sartzeko moduan. 3 logela, egongela, sukalde jantzia, despentsa eta komuna. Berogailua. **88.000n.**

DURANGO. ERRENTXU



- 73,43 m2. Logela 2, egongela, sukalde jantzia, komuna, bainugela eta esekitokia. **145.000n. Prezio negoziagarria.**

IURRETA



- Logela 2, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Guztiz berriztua. **120.000n.**

BERRIZ



- Berriztua. Logela 2, 3 egiteko aukerarekin, egongela, sukalde jantzia, komuna eta despentsa. Berogailua. Ikuspedi ederrak. Eguzkitsua. **115.000n.**

ELORRIO



- Berria, estreinatzeke. Logela 2, egongela, sukalde jantzia eta komun 2. Trastelekua. **150.000n.**

ZALDIBAR



- 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Berogailua. Oso egoera onean dagoen etxebizitza. **137.000n. Prezio negoziagarria.**

www.inmoduranguesado.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

- ANDRA MARIA: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 2/4 logela eta komun 2.
 - ARAMOTZ: Halla, 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
 - ARTEKALEA: 1/4 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
 - ASKATASUN ETORBIDEA: 3/4 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
 - ASTOLABIDE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
 - LANDAKO ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoi 2. Garajea eta trastelekua.
 - BARRENKALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia.
 - ERROTARITXUENA: Logela 2, sukaldea, egongela eta komun 2. Terraza 2. Garajea aukeran eta trastelekua.
 - ERRENTXU: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Garajea aukeran.
 - EZKURDI: 4 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Garajea aukeran eta trastelekua.
 - EZKURDI: 5 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta 3 komun. Terraza. Trastelekua.
 - EZKURDI: 3 logela, sukaldea, egongela, komuna eta bainugela.
 - F.J. ZUMARRAGA: Halla, egongela, egongelatxo, sukaldea, 3 logela eta komuna.
 - FRANTZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea aukeran.
 - GALTZARETA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea eta trastelekua.
 - IBAIZABAL AUZUNEA: Logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garajea.
 - JUAN ITZIARCO: Logela 2, sukaldea, egongela, komuna eta despentsarekin.
 - JUAN ITZIARCO: Logela 2, sukaldea, egongela eta komun 2. Lursailarekin.
 - JUAN MARI ALTUNA: Logela 2, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
 - KIRIKIÑO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
 - KOMENTU KALEA: 2/4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Trastelekua.
 - MIKELDI: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
 - MONTEVIDEO: Logela 2, sukaldea, egongela eta komuna.
 - MUGARRA: 3 logela, sukaldea, egongela, komuna eta bainugela. Balkoia. Trastelekua.
 - PLATERUEN PLAZA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea.
 - SAN AGUSTIN: 5 logela, sukalde-jangela, egongela eta 3 komun.
 - SAN INGAZIO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
 - SASIKOA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea eta trastelekua.
 - SASIKOA: 4 logela, sukalde-jangela, egongela eta komun 2. Balkoia. Trastelekua.
 - TABIRA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Lokal komertziala.
 - TABIRA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garajea eta trastelekua.
 - UNDATORRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- ABADIÑO
- ANDRA MARI: 3 logela, sukaldea, egongela, komuna eta bainugela. Despentsa. Balkoia.
 - ARLOZABAL: Logela 2, egongela, sukaldea eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
 - ZELETABE: Berriztatzeke.

Etxebizitza gehiago salgai Matienan, Abadiñon, Berrizen, Zaldibarren eta Otxandion, besteak beste.

ETXEBIZITZAK SALGAI

F.J. ZUMARRAGA



- 85 m2. 3 logela, komuna, egongela terrazarekin eta sukalde handia. Igogailua. Eguzkitsua. Garaje itxia aukeran, 2 kotxerentzako. **120.000n.**

ALLUITZ



- Erdi berria. Apartamentua. Sukalde-jangela eta egongela. Ganbara. **147.000n.**

ARAMOTZ



- Logela 2, komuna, egongela eta sukaldea. **85.000n.**

SASIKOA



- 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Balkoia. Ganbara. Garaje itxia aukeran. Guztiak ematen du kanpora. **206.000n.**

LEHENDAKARI AGIRRE



- 90 m2. 3 logela, komun 2, sukaldea esekitokiarekin eta egongela terrazarekin. Ganbara. Garajea. **259.500n.**

ABADIÑO (aukeran)



- Erdi berria. Logela 2, komun 2, egongela eta sukaldea esekitokiarekin. Terraza.

LOKALAK ETA ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN. KONTSULTATU.
www.inmoetxetxo.com

AGENDA

ANBOTOKo agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **94 623 25 23** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Maiatzaren 8an, 22:00etan, Berrizko Kultur Etxean

Amorante

Amorante proiektua aurkeztera dator Iban Urizar musikaria Berrizko Kultur Etxera. Tren Geltokiko Musikariak zikloaren barruko hirugarren emanaldia izango da. Ahotsagaz batera, hainbat musika tresna baliatuko ditu Urizar elgoibartarrak: gitarra, tronpeta, ukelelea edo harmoniuma jotzen ditu, besteak beste.

Antzerkia

:: BERRIZ

MAIATZAREN 9an

20:00etan, 'La Prudencia', Kultur Etxean.

:: DURANGO

MAIATZAREN 9an

20:00etan, Zugan Ni Eguna, San Agustin kulturgunean.

MAIATZAREN 10ean

18:00etan, 'Martinak bere istorioa aurkitu zueneko', San Agustin kulturgunean.

:: ELORRIO

MAIATZAREN 10ean

17:00etan, 'Kixote', Arriolan.

:: ZORNOTZA

MAIATZAREN 8an

21:00etan, 'Edipo', Zornotza Aretoan.

Musika

:: BERRIZ

MAIATZAREN 8an

22:00etan, Amorante, Kultur Etxean.

:: DURANGO

MAIATZAREN 8an

21:30etan, Durang(h)ots Jam Session, Plateruenean.

:: ZORNOTZA

MAIATZAREN 9an

20:00etan, Miquel Bofill Sax Quartet, Boroako San Pedro ermitan.

MAIATZAREN 12an

19:00etan, gitarra klasikoko emanaldia, Zelaietako auditoriumean.

MAIATZAREN 14an

19:00etan, txistu kontzertua, Zelaietako auditoriumean.

MAIATZAREN 15ean

20:00etan, 'Torreburutik mundura', Xabier Amurizaren bertso-poesia, Dudeako San Migel ermitan.

Jaiak

:: ABADIÑO (Sanrokazak)

MAIATZAREN 12an

21:00etan, Gerbasen kalejira txistulariekin eta dantzarien ekitaldia, San Trokaz plazan.

MAIATZAREN 14an

14:00etan, kanpainen errepika.

MAIATZAREN 15ean

12:00etan, meza nagusia. Ondoren, ezpata dantzarien eta irlanderen dantzaldia, San Trokaz plazan.

18:00etan, 'Txatarra' ikuskizuna, Ferialeku plazan.

19:30etan, San Trokaz Txapelketako finala, Tornosolo trinketean.

21:00etan, Luhartz, Txanporta plazan.

Bertsoak

:: MAÑARIA

MAIATZAREN 15ean

21:00etan, Unai Iturriaga eta Fredi Paia bertso afarian, Herriko tabernan.

Dantza

:: ELORRIO

MAIATZAREN 8an

22:00etan, 'Barbecho', Arriolan.

Lehiaketa

:: IURRETA

Ekainaren 19ra arte

San Migel jaietako kartela aukeratzeko lehiaketa. Informazio guztia: www.iurretakoudala.net.

:: ZALDIBAR

Maiatzaren 22ra arte

Jaietako kartela aukeratzeko lehiaketa. Maiatzaren 22ko 15:00ak arte aurkeztu daiteke udaletxean.

:: ELORRIO

MAIATZAREN 14ra arte

Van Dick irudigilearen lanean oinarritutako grabatuen erakusketa, Iturri kultur etxean.

Zinema

:: ELORRIO

MAIATZAREN 13an

19:30etan, 'Art and Craft' dokumentala, Iturri.

Kontalaria

:: DURANGO

MAIATZAREN 16an

11:30etan eta 12:15etan, 'Around the world', umeentzako ipuin kontalaria ingelesez, Udal Liburutegian.

:: IURRETA

MAIATZAREN 8an

17:00etan eta 17:15etan, 3 eta 5 urtekoentzako saioa, Herri Bibliotekan.

Berbaldia

:: ABADIÑO

MAIATZAREN 10ean

12:00etan, Javier Franco arkeologoa, 'Urkiolako Parkean aurkitu den Bizkaiko haizeolarik zaharrenari buruz', Urkiolan. Izen-ematea: 946 814 155 zenbakira deituta edo 'urkiola.parke.naturala@bizkaia.eus' helbide elektronikora idatzita.

:: ELORRIO

MAIATZAREN 8an

17:00etan, 'Elorriko historia', Iñigo Aguirereren eskutik, Aldatsekuan.

MAIATZAREN 20an


19:00etan, 'Estatu islamikoa', Victor Pozasen eskutik, Iturri kultur etxean.

Erakusketa

:: DURANGO

MAIATZAREN 10era arte

Amaia Lekerikabeaskoaren eta Isusko Vivasen 'Gara' erakusketa, museoan.



:: DURANGO | ZUGAZA

El viaje más largo

- barikua 8: 19:30/22:00
- zapatua 9: 20:00/22:30
- domeka 10: 18:30/21:30
- astelehena 11: 18:30/21:00
- martitzena 12: 20:00

Minusculos 3D

- zapatua 9: 16:00
- domeka 10: 16:00

Felices 140

- zapatua 9: 18:00

2. ARETOA

Felices 140

- barikua 8: 22:00
- domeka 10: 18:30
- astelehena 11: 18:30
- martitzena 12: 20:00

Tiempo sin aire

- barikua 8: 19:30
- zapatua 9: 22:30
- domeka 10: 21:00
- astelehena 11: 21:00

El viaje más largo

- zapatua 9: 16:30
- domeka 10: 16:00

:: ELORRIO | ARRIOLA

Txarriboda

- domeka 10: 20:00
- astelehena 11: 20:00

:: ZORNOTZA | ZORNOTZA ARETOA

Little Galicia

- zapatua 9: 22:30
- domeka 10: 20:00
- astelehena 11: 20:15

La oveja Shaun: La película

- zapatua 9: 17:00
- domeka 10: 17:00

MAIATZEKO AGENDA

8

XII. LITERATUR LEHIAKETAREN SARI BANAKETA
13:30 DBHko ikasleak, batxilergoko ikasleak eta helduak.
15:00 Lehen Hezkuntza.

Kz GUNEA
16:00 'Google Maps' ikastaroa.

9

IURRETAKO KIROL TALDEA - FUTBOLA LARRAKOZELAIAN
17:00 IURRETAKO A - SODUPE

11

HERRI BIBLIOTEKA
17:00 Haurren irakurketa kluba (8-9 urte).
18:00 Haurren irakurketa kluba (9-10 urte).

ZUGAN NI IBARRETXE ETXEA
19:00 Antzerki amateur, sarrera dohainik.

12

HERRI BIBLIOTEKA
18:30 Helduen irakurleen txokoa.
ANDEREBIDE, IURRETAKO EMAKUMEEN ELKARTEA
IBARRETXE KULTUR ETXEA
18:00 Bideoforuma.

13

AZALERAKO IPUINAK
17:00 0-18 hilabete bitarteko haurtxoak.
18:00 18-36 hilabete haurtxoak.

HERRI BIBLIOTEKA
18:30 Helduen irakurleen txokoa.

14

KONTSUMOBIDE "ZURENGANDIK GERTU"
IBARRETXE KULTUR ETXEAN
Hitzaldiak: Kontsumorako prestakuntza.
18:30 Gaia: 'Comercio electrónico'.

“Trikitiak bete egiten nau; edonork jota ere, irribarrea ateratzen dit”

Soinu txiki eta pandero eskolak ematen ditu Nagore Palacios; heldu eta gazte, une honetan 103 ikasle ditu

> AKUILUA Aitziber Basauri Soinu txikia jotzen 10-11 urte-gaz hasi zen Nagore Palacios. Orain ogibide bihurtu, eta Soinutxikie eskola sortu du. Musika Hezkuntza eta Psikopedagogia egin dituen 26 urteko zornotzarrak dioenez, ez dago adinik ‘infernuko hauspoa’ jotzeko. Trikitia eta panderoa jotzen irakasten du; ekainean eta uztailan, musika tailerrak ere eskainiko ditu umeentzat.

Urte asko behar da soinu txikia dominatzeko? Etxean eskainitako orduen araberakoa ere bada. Gidatzen ibiliz ikasten den bezala, soinu txiki jotzen ere horrela ikasten da. Oinarritzak ikasita, kalera irten, eta jotzen hartzen da erraztasuna.

Euskal Herrian XIX. mendearen amaieran hasi zen hedatzen soinu txikia. Urkiolako erromeria batekoa da lehen aipamen idatzia, 1889koa. Teoria bi daude. Baten arabera, Gipuzkoako trenbidean lanera Italiatik etorritako langileek ekarri zuten, eta bertakoek ikasi ondoren zabaldu zen. Besteen arabera, Bilboko portutik sartu zen; hantxe egon zen aurreneko trikiti denda.

Jatorri italiarra du, beraz. Hori dio teoria batek. Baina gure egin dugu, euskal kulturaren oso uztartuta dugu. Zabalkuntza handia eduki du, lehenengo Gipuzkoan, eta gero Bizkaian.

Erromeriekin oso lotuta dago. Bai, erromeria talde gehienek trikitia dute; alaia delako-edo!

Beste musika mota batzuekin ere uztartu dute azkenaldian. Zentzu horretan asko aldatu da. Gose taldeak musika elektronikoagaz uztartu du, eta Kepa Junkerak mila gauza egin ditu: betiko piezekin hasi zen, baina, adibidez, jazz eta blues estiloekin ere egin ditu diskoak. Askok berritu du trikitia. Junkerak eman dio, dudu barik, bueltarik handiena; gura duena egiten du trikitiagaz. Trikitiak edozein musika motatan eduki dezake lekua.

Adinik badago trikitia jotzen hasteko? Eskolaz kanpoko jardueran ematen ditut eskolak, Lehen Hezkuntzan zein batxilergoan. Hala ere, Soinutxikie eskolan denak dira helduak: seme-alabekin, lanagaz... Ikaste-gogoia erakusten du horrek Motibazio handia ikusten zaie, eta, alde horretatik, pozik nago.

Soinutxikie proiektua abiatu berri duzu. Lokala intsonorizatzeak eta enpresa bat sortzeak dituen gastuekin, inbertsio handia eskatu dit proiektuak, baina nire txokoa dut, eta gustukoan dudana egiten dut. Etxeko laguntza asko eskertzen dut.

Pozik? Bai. Gainera giro oso ona dugu. Adibidez, triki-poteoak egiten ditugu, eta kontzertu bat ere eskainiko dugu, ekainaren 18an, Zelaietan.

‘Infernuko hauspoa’ jotzeko abilezia berezirik behar da? Izan daiteke batzuek berezko erraztasuna izatea atzamarren mugimenduari, erritmoari edo belarriari dagokionez, baina edonork ikasi dezake. Gainera, aukera ematen dut bai solfeo bidez, bai zenbaki bidez ikaste. 28 ikasle ditut Soinutxikien, baina, guztira, 103 ditut. Ikastolan, eskola publikoan, institutuan eta El Karmelo ikastetxean ematen ditut eskolak.

Trikitiarekiko zaletasun berezia dago Zornotzan? Bai. Nik 103 ikasle ditut, baina musika eskolan ere eskaintzen dute aukera. Neure irakasle izan zen Sorayak zaletasuna sortu zuen, eta zabalduen joan da.

Zer da zuretzat trikitia? Bete egiten nau. Berdin dit nork jotzen duen; jo dezake Junkerak Alondegian edo beste edo-

nork herriren batean, baina irribarrea ateratzen dit.

Trikitia eta panderoa banatu ezinezko bikotea da? Ez, oso lotuta dauden arren. Trikitiagaz hainbeste gauza egiten diren honetan, askotan panderoa ez da ageri, baina bere garrantzia du. Askok jantzen du, askotan bigarren planoan geratu arren.

Euskal kantak ere irakasten dituzu.

Ez dugu ahots teknikarik lantzen, baina trikitiagaz gauzak egiten ditugu bi ahotsetara. Hamar laguneko talde-txoa dugu.



LAUHORTZA

ANDONI BARREÑA
Irakaslea



Oroimen historikoa eta ahanztura

Durungaldeko herritarrei oroimen historikoa aipatzean, bonbardaketak datozkigu gogora: Otxandiokoak, Durangokoak edo direnak direla. Garrantzi handikoak izan dira, bonbardaketen bidez herri osoa hil, txikitu, ikarratu eta desegituratu nahi izan zuten eta.

Baina bitxia izan da ekintza gerozida hori ahazteko herritar askok izan duten gogoia. Ahaztuz gero, ez ei zen gertatu. Kontatu ezik, ez ei zuten bizi. Ez dugu hausnarketa kolektiborik egin, eta ez dugu ulertu bonbardaketaren helburua ez zirela gorriak edo sinesgabeak izan, herritar guztiak baizik. Ez al da ikaragarriena zilegitasunik eta arrazoirik gabeko beldurra? Zer da eraginkorragoa pertsonak beldurtzeko errepresio indiskriminatua baino?

Eta horrela jarraitzen dugu, ahanzturaren biltegia elikatzen. Non oroitzen da Durangoko bonbardaketa? Hilerrian. Elizpeko plakaren tamainaren neurrikoa izan al zen gure herriak jasan zuena?

Baina gogoian izan behar dugu bonbardaketa ez zela izan faxisten errepresio indiskriminatu bakarra. Ezta durangarrek ahaztutako bakarra ere. Hor ditugu fusilamenduak, fusilamendu indiskriminatuak. Gaur Abadiñon bizi zen durangar batena ekarriko dut hona. Abadiñon egundo ez zaio ezer aitortu; Durangon, gutxi eta berandu. Jose Maria Angulo Arroitauregi Derion fusilatu zuten 1937ko abuztuaren 5ean. Arrazoiak: nacionalista exaltado eta Abadiñoko Defentsa Batzordeburua izatea.

Arlo honetan bada garaia herri ekimenetik eta erakundeetatik datozen indarrak elkartzeko eta duintasunezko eta justiziazko kontakizuna bideratzeko eta zabalteko.

Egin ezazu zure lehen jaunartzeko bazkaria leku zoragarri batean

RESTAURANTE
akebaso
JATETxea

San Juan auzoa, 20 · Atxondo, Bizkaia

Tel.: 946 582 060 · www.akebasorestaurante.com



Nire lehen jaunartzea



Jatetxea egunero dago zabalik, karta eta menuekin